



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

43. zenbakia

Asteartea, martxoaren 3a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

- AKATS ZUZENKETA, urtarrilaren 29ko 5/2020 Foru Dekretuarena. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen da.

2447

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

- 489/2020 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Langileen Batzordeak, bere ordezkari gisa, kalifikazio-epaimahairako proposatutako kideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko bederatzi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian.
- GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan terapeuta okupazional izateko 2 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren gainean.

2447

2447

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 123/2020 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman eta kudeatzen dituen dirulaguntza batzuetarako 2020ko gastua baimentzen duena. DDBN identifikazioa: 494847.
- 55E/2020 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez baimentzen

2447

baita deialdi honen gastua: "Toki entitateentzako dirulaguntzak langabeak kontratatzeagatik." DDBN identifikazioa: 494871.

2448

- 114E/2020 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, abenduaren 26ko 4094E/2019 Ebazpena aldatzen duena.

2448

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

- 47/2020 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez akats zuzenketa egiten baita urriaren 3ko 96C/2019 Ebazpenean. Horren bidez, Timac Agro España SA enpresaren Lodosako lantokirako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki zen.
- 5C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, GKN Driveline enpresaren Zarakazteluko lantokirako hitzarmen kolektibotik eratorritako akordioa erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.
- 6C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Villatuertako Gráficas Cems SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.
- 10C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 29koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren

2448

2448

2449

ORRIALDEA

ORRIALDEA

zuzendari nagusiak emana, Tuterako Inplastic SA enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.	2449	dez ezarri ziren Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzaz-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.	2450
- 12C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Noaingo Shanae Servicios Geriátricos SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.	2449	- 39/2020 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ezartzen baita zein izanen den, ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko prozeduraren barnean, hurbiltasun linealaren irizpidea, haren balorazioa eta aplikatuko den gehieneko distantzia, zer herritan aplikatuko den eta zein izanen den ikasleen batez besteko gehieneko erlazioa eskola unitate bakoitzeko, bai eta, horrez gain, zein diren prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak ere, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak egiteko 2020-2021 ikasturtean.	2452
- 13C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Restauración Hambar Cuatro SL enpresaren Iruñeko Mercaderes kaleko 17ko lantokirako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.	2449	- JENDAUURREKO INFORMAZIOA, Esan goi tentsioko instalazio elektrikoa jartzeko administrazio baimenari buruzkoa, proiektuaren onespenerari buruzkoa eta zehazki haren onura publikoa deklaratzeari buruzkoa. Espedienteak: SAT11070.	2455
- 14C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Orkoiengo Basmat Mattying System SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.	2449	2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA	
- 15C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Uharteko Zeroa Multimedia SA enpresaren hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordio partziala erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.	2449	2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA	2457
- 17C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, erabakitzen duena Nafarroako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboko soldadak 2020an berrikusteari buruzko akordioa erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.	2450	- OLTZA ZENDEA	2457
- 18C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Elikagaien Biltegizainen sektorearen hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.	2450	- OTSAGABIA	2457
		- IRUÑA.....	2458
		2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK	2459
		- BARAÑAIN	2459
		- BUÑUEL	2459
		- CAPARROSO	2459
		- OLTZA ZENDEA	2460
		- CORELLA	2460
		- ETXARRI	2464
		- IGANTZI.....	2464
		- URRULGOITI	2464
		- EGUESIBAR	2464
		- ZUÑIGA	2468
		- UHARTEKO ETA ESTERIBARKO UDALEN ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.....	2468
		- NOAIN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.....	2468
		- AZKOIEN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.....	2469
		6. BESTELAKO IRAGARKIAK	2470
		6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK	2470

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

AKATS ZUZENKETA, urtarrilaren 29ko 5/2020 Foru Dekretuarena. Horen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen da.

Akats bat atzeman da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen urtarrilaren 29ko 5/2020 Foru Dekretuan (2020ko 27. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 10ekoan), eta bidezkoa da dagokion zuzenketa egitea:

Artikulu bakarra.—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan lanpostu batzuk sortzea.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia:

Honako hau dioen tokian:

“Kazetaria. Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, plantilla organikoan 10926 zenbakia duena.

—Administrazio publikoko teknikaria (arlo ekonomikoa). Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, plantilla organikoan 10927 zenbakia duena.

—Administrari laguntzailea. Hiru lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, D mailakoak, plantilla organikoan 10928, 10929 eta 10930 zenbakiak dituztenak.”

Honako hau behar du:

“Kazetaria. Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, destinoa Burlatan duena, plantilla organikoan 10926 zenbakia duena.

—Administrazio publikoko teknikaria (arlo ekonomikoa). Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, destinoa Burlatan duena, plantilla organikoan 10927 zenbakia duena.

—Administrari laguntzailea. Hiru lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, D mailakoak, destinoa Burlatan dutenak, plantilla organikoan 10928, 10929 eta 10930 zenbakiak dituztenak.”

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an.—Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguí.

F2002916

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

489/2020 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Langileen Batzordeak, bere ordezkari gisa, kalifikazio-epaimahairako proposatutako kideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko bederatzi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren urriaren 14ko 2925/2019 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko arkitekto tekniko izateko bederatzi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen. Ebazpena 2019ko 223. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 12koan.

Bidezkoa da izendatzea, kalifikazio-epaimahaiaren parte har dezaten, Langileen Batzordeak, bere ordezkari gisa, proposatutako kideak.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Izendatzea, kalifikazio-epaimahaiaren parte har dezaten, Langileen Batzordeak, bere ordezkari gisa, proposatutako kide hauek: losu Moreno Merino jauna, kide titular, eta Nuria Hernández Guillen andrea.

2. Ebazpen hau kalifikazio-epaimahaiko kideei igortzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta interesdunei ohartaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal dela, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko

kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin; aipatutako lege horrek hizpide du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean.—Funtzio Publikoko zuzendari nagusia, Amaia Gofñi Lacabe.

F2002915

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan terapeuta okupazional izateko 2 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren gainean.

Gora jotzeko errekurtsioa jarri da oposizioaldiko behin betiko emaitzen aurka honako deialdi honetan: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan terapeuta okupazional izateko 2 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 21eko 736E/2019 Ebazpenaren bidez onetsia. Hori dela eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. eta 118.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat, hautapen prozedura bateko egintza aurkaratu denez, interesdun guztiei jakinarazten zaie gehienez hamar egun balioduneko epea izanen dutela, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako errekurtsioaren kopia interesdunen eskura dago, identifikazio dokumentu bat erakutsi eta gero, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Zerbitzuan (Tutera kalea 20, lehenengo solairua, Iruña).

Alegazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako moduan aurkeztu behar dira.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an.—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Zerbitzuko burua, Marta Beamonte Aréjula.

F2002939

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

123/2020 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman eta kudeatzen dituen dirulaguntza batzuetarako 2020ko gastua baimentzen duena. DDBN identifikazioa: 494847.

Abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, erakunde horren eginkizuna da Foru Komunitatearen Administrazioari esleitutako eskumenak baliatzea gizarte-eragileekin adostutako enplegu politikak planifikatu, gauzatu eta kontrolatzeari dagokionez, arlo hauen gainean ezartzen diren zerbitzu eta programak modu koordinatuan kudeatuz: enpleguaren sustapena, lan merkatuan sartzeko aukera berdintasuna, lana aurkitzea, enplegurako bitartekaritza, orientazioa eta prestakuntza, eta Nafarroako enpleguaren egoeraren eta horren gaineko politiken analisia.

Uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretuan eta martxoaren 28ko TMS/368/2019 Aginduan enplegurako prestakuntzarako aurreikusitako modalitateetan parte hartzen duten langabeak beken eta laguntzen onuradunak izan daitezke, azken arau horretan zehaztu bezala.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 30. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzen deialdiek berekin ekarri beharko dute gasturako baimena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 55. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Azaldutakoarekin bat, eta abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuak onetsitako Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 13. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. 400.000 euroko gastua baimentzea Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatzen dituen enplegurako prestakuntza ekintzetan parte hartzen duten langabeentzako beka eta laguntzak finantzatzeko, 2020ra luzatu den 2019ko gastu-aurrekontuko “Prestakuntza ekintzetarako beka. Konferentzia sektoriala” izeneko 950002 96200 4809 242100 partidaren kargura.

2. Ebazpen hau Lanbide Gaitasunak Garatzeko Zerbitzuari eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Kontu-hartzaitza delegatuari igortzea.

3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 5ean.—Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, Mirian Martón Pérez.

F2002311

55E/2020 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez baimentzen baita deialdi honen gastua: "Toki entitateentzako dirulaguntzak langabeak kontratatzeagatik." DDBN identifikazioa: 494871.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 302/2019 Foru Dekretuaren 12. artikulua bidez emandako ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. 2020ra luzatutako 2019ko gastu aurrekontuaren kargura gastu hau baimentzea: Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzak, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren bidez arautu ziren dirulaguntza horiek, eta 494871 zenbakia dute Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan. Gastua 4.000.000 eurokoa da eta 2020ra luzatutako 2019ko gastu aurrekontuko "Toki entitateen kontratazioetarako laguntzak. Konferentzia Sektoriala" izeneko 950001 96100 4609 241100 partidaren kargura ordainduko da.

2. Aurreko ekitaldian ebatzi gabe gelditu ziren eskaerei 2020ra luzatu den 2019ko aurrekontuaren kargura erantzutea.

3. Gehienez ere 800.000 euroko zenbateko gehigarria baimentzen ahalgo da. Hori eraginkorra izateko, legez aurreikusitako inguruabarren bat gertatzearen ondorioz baimendu beharko da. Kreditu gehigarri horretarako baimena, kasua bada, organo eskudunak emanen du, eta deialdiaren modu berean argitaratuko da. Horrek ez du ekarriko beste epe bat irekitzea eskaerak aurkezteko, ez berriz hastea ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

1.—Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2.—Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute, eskumena duen ordena jurisdikzionalari zuzendua, honako hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, galarazi gabe Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izateko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 12an.—Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, Mirian Martón Pérez.

F2002168

114E/2020 EBAZPENA, otsailaren 21koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, abenduaren 26ko 4094E/2019 Ebazpena aldatzen duena.

Abenduaren 26ko 4094E/2019 Ebazpenaren bidez onetsi ziren batik bat lanean ari direnei eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari lotuta daudenei zuzendutako 2020ko prestakuntza programak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Deialdiaren bi oinarrietan paragrafo bana falta atzeman da.

13. oinarria gauzatzeari eta hasiera jakinarazteari buruzkoa da, eta 5 atal ditu. Beste bat gaineratu da:

13.6. Entitateek aldaketak egiten ahalgo dituzte prestakuntza jardueretan, baldin eta horien ondorioz balorazio fasean lortutako puntuazioa gutxitzen ez bada. Entitateak aldaketa horien berri eman behar die Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari prestakuntza jarduera hasi baino 15 egun lehenago beranduenez, aldaketak egin eta gero lortutako puntuazioaren justifikazioarekin batera.

15. oinarria dirulaguntzaren justifikazioari eta ordainketari buruzkoa da, eta 9 atal ditu. Beste bat gaineratu da:

15.10. Prestakuntza orduen %25 eman ondoren parte-hartzaileen batek ekintza uzten badu, eta arazoia lana, beka edo lanetik kanpoko praktikak aurkitzea ez bada, prestakuntza ekintzen ondoriozko desbideratzeak onartuko dira, gehienez ere ekintza hasi duten parte-hartzaileen %10enak.

Horrenbestez, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 302/2019 Foru Dekretuaren 12. artikulua bidez emandako ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Abenduaren 26ko 4094E/2019 Ebazpena aldatzea, azalpen zatian ezartzen den moduan.

2. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta entitate interesdunei jakinaraztea.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean.—Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, Mirian Martón Pérez.

F2002929

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

47/2020 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez akats zuzenketa egiten baita urriaren 3ko 96C/2019 Ebazpenean. Horren bidez, Timac Agro España SA enpresaren Lodosako lantokirako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki zen.

Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren urriaren 3ko 96C/2019 Ebazpenaren bidez, Timac Agro España SA enpresaren Lodosako lantokirako hitzarmen kolektiboa (kode zenbakia: 31004102011981) erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki zen. Hitzarmena 2019ko 223. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 12koan.

Akats bat atzemanenez hitzarmenaren argitalpenean, hitzarmena negoziazio batzordeak adostutako numeraziorik gabe argitaratu baita, bidezkoa da akats hori zuzentzea hitzarmen kolektiboa berriro argitaratuz.

Erakunde honek gai horren ardura hartzeko duen eskumena ezarrita dago Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Lan hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, bidezkoa da egindako akatsa zuzentzea, eta horretarako, hitzarmen kolektiboa berriro argitaratzea.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Argitaratzea Timac Agro España SA enpresaren Lodosako lantokirako hitzarmen kolektiboa (kode zenbakia: 31004102011981) atzemandako akatsa zuzendu ondok.

2. Ebazpen hau jakinaraztea hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeari, eta ohartaraztea ebazpenak ez duela administrazio bidea amaitzen eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dela, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Hartan espediente zenbakia adierazi beharko da ("Erreferentzia: Esped:" hitzen ondoren dagoen zenbakia).

Iruñean, 2020ko otsailaren 12an.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

[Timac Agro España SA enpresaren hitzarmen kolektiboa, Lodosako lantokirako](#) (PDFa).

F2002225

5C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, GKN Driveline enpresaren Zarrakazteluko lantokirako hitzarmen kolektibotik eratorritako akordioa erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.

GKN Driveline enpresaren Zarrakazteluko lantokirako hitzarmen kolektibotik eratorritako akordioaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31100582012014), erregistro honetan 2019ko abenduaren 23an sartu zena, enpresaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak 2019ko abenduaren 19an izenpetua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[GKN Driveline enpresaren Zarrakazteluko lantokirako hitzarmen kolektibotik eratorritako akordioa](#) (PDFa).

F2000995

6C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Villatuertako Gráficas Cems SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.

Villatuertako Gráficas Cems SL enpresaren hitzarmen kolektiboaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31100362012013), erregistro honetan 2019ko azaroaren 21ean sartu zena, enpresaren eta sindikatuen ordezkariak 2019ko azaroaren 13an sinatua eta 2019ko abenduaren 24an zuzendua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[Villatuertako Gráficas Cems SL enpresaren hitzarmen kolektiboa](#) (PDFa).

F2000996

10C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 29koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Tuterako Inplastic SA enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.

Tuterako Inplastic SA enpresaren hitzarmen kolektiboaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31004222011998), erregistro honetan 2020ko urtarrilaren 3an sartu zena, enpresaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak 2020ko urtarrilaren 2an izenpetuta, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 29an.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[Tuterako Inplastic SA enpresaren hitzarmen kolektiboa](#) (PDFa).

F2001349

12C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Noaingo Shanae Servicios Geriátricos SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Noaingo Shanae Servicios Geriátricos SL enpresaren hitzarmen kolektiboa aztertu da (kode zenbakia: 31100672012014), 2019ko abenduaren 16an erregistro honetan sartu zena, enpresaren eta sindikatuen ordezkariak 2019ko apirilaren 15ean sinatu eta 2020ko urtarrilaren 10ean zuzendu zena, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratu

eta Gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[Noaingo Shanae Servicios Geriátricos SL enpresaren hitzarmen kolektiboa](#) (PDFa).

F2001631

13C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Restauración Hambar Cuatro SL enpresaren Iruñeko Mercaderes kaleko 17ko lantokirako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.

Restauración Hambar Cuatro SL enpresaren Iruñeko Mercaderes kaleko 17ko lantokirako hitzarmen kolektiboaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31101711012020), erregistro honetan 2019ko otsailaren 15ean sartu zena, enpresaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak 2017ko abenduaren 15ean izenpetu eta 2020ko urtarrilaren 13an zuzendua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[Restauración Hambar Cuatro SL enpresaren hitzarmen kolektiboa, Iruñeko lantokirako](#) (PDFa).

F2001630

14C/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Orkoingo Basmat Mattying System SL enpresaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Orkoingo Basmat Mattying System SL enpresaren hitzarmen kolektiboa aztertu da (kode zenbakia: 31100342012013), erregistro honetan sartu zena 2020ko urtarrilaren 14an, enpresaren eta sindikatuen ordezkariak 2019ko abenduaren 22an sinatu eta 2020ko urtarrilaren 15ean zuzendu zena, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Gofñi Razquin.

[Orkoingo Basmat Mattying System SL enpresaren hitzarmen kolektiboa](#) (PDFa).

F2001632

15C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez erabakitzen baita Uharteko Zeroa Multimedia SA enpresaren hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordio partziala erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Uharteko Zeroa Multimedia SA enpresaren hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordio partzialaren testua aztertu da (kode zenbakia:

31007932012000), erregistro honetan sartu zena 2020ko urtarrilaren 15ean, enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatua 2019ko abenduaren 20an, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatueta eta Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean. Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

[Uharteko Zeroa Multimedia SA enpresaren hitzarmen kolektiboak adatzeko akordio partziala](#) (PDFa).

F2002081

17C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, erabakitzen duena Nafarroako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboko soldatak 2020an berrikusteari buruzko akordioa erregistratzea, gordailutzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Nafarroako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboko 2020ko urteko soldaten berrikuspenari buruzko akordioaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31006805011981), erregistro honetan 2020ko urtarrilaren 29an sartu zena, enpresaren ordezkariak (ANEM eta APMEN) eta sindikatu batzuen ordezkariak (UGT eta CCOO) 2020ko urtarrilaren 28an izenpetua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatueta eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

[Nafarroako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboko 2020ko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa](#) (PDFa).

F2002083

18C/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Elikagaien Biltegizainen sektorearen hitzarmen kolektiboak erregistratu, gordailutu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena.

Nafarroako Elikagaien Biltegizainen sektorearen hitzarmen kolektiboko 2020rako soldaten berrikuspenari buruzko akordioaren testua aztertu da (kode zenbakia: 31001505011981), erregistro honetan 2020ko urtarrilaren 28an sartu zena, enpresaren ordezkariak eta sindikatu batzuen ordezkariak (UGT eta CCOO) 2020ko urtarrilaren 22an izenpetua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua 2. eta 3. apartatueta eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

[Nafarroako Elikagaien Biltegizainen sektorearen hitzarmen kolektiboko 2020rako soldaten berrikuspenari buruzko akordioa](#) (PDFa).

F2002084

1.7. BESTELAKOAK

32/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez eguneratzen baitira, 2019-2020 ikasturterako, toki entitateen ekarpenaren portzentajea eta finantzaketa moduluen zenbateko ekonomikoak, hots, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ageri direnak, eta zeinaren bidez finantzaketa modulu batzuk onesten baitira, haur eskoletan ordutegi ezberdinetako lanaldiak konbinatzeko. 79/2012 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 15.1 artikulua ezartzen du ezen administrazio publikoek baldintzak zehaztuko dituztela hitzarmenak egin ahal izateko toki korporazioekin, beste administrazio batzuekin eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin, Haur Hezkuntzako lehen zikloan hezkuntza-eskaintza bermatzeko.

Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautu eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezarri ziren. Bertan ezartzen denari jarraikiz, Hezkuntza Departamentuaren eta administrazio publiko interesdunen arteko hitzarmen bidez sortuko dira haur eskolak, eta hitzarmen horietan ezarriko da, hala denean, finantzaketa araubidea.

Hezkuntza Departamentuak parte hartzen du udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako ikastetxeen kudeaketaren finantzaketan, eta horretarako, lankidetzak-hitzarmenak sinatzen ditu.

Abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduaren 4.1 artikuluan adierazten da ezen aipatu foru aginduaren eranskinean jasotako moduluetan oinarrituz ezarriko dela finantzaketa hori.

79/2012 Foru Aginduaren xedapen gehigarri bakarrak xedatzen duenez, aurrekontuko xedapenen arabera, zuzendari nagusi eskudunak ikasturte bakoitzean eguneratzen ahaliko ditu toki entitateei dagokien ekarpenaren portzentajea eta finantzaketa moduluen zenbateko ekonomikoak.

Otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuak hilean 950 eurotan ezartzen du lanbide arteko gutxieneko soldata 2020rako.

2020ko ekitaldiko aurrekontuko diru erabilgarriak aukera ematen du 2019-2020 ikasturterako eguneratzeko toki entitateen ekarpenaren portzentajea eta finantzaketa moduluen zenbatekoa.

Abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindu horren eranskinean ez daude haur eskoletan ordutegi ezberdinetako lanaldiak konbinatzeko finantzaketa moduluak.

Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du eguneratzeko, 2019-2020 ikasturterako, toki entitateei dagokien ekarpenaren portzentajea eta finantzaketa moduluen zenbateko ekonomikoak, hots, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ageri direnak, eta finantzaketa modulu batzuk onesteko haur eskoletan ordutegi ezberdinetako lanaldiak konbinatzeko. 79/2012 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Eguneratzea, 2019-2020 ikasturterako, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ageri diren finantzaketa moduluen zenbateko ekonomikoak, ebazpen honen I. eranskinean jaso bezala. 79/2012 Foru Aginduaren bidez, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak-hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezarri ziren, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

2. %24an eguneratzea, 2019-2020 ikasturterako, toki entitateei dagokien ekarpenaren portzentajea, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko.

3. Finantzaketa modulu batzuk onestea harik eta, kasua bada, zuzendari nagusiak aurrekontuko xedapenen arabera eguneratzen dituen arte, haur eskoletan ordutegi ezberdinetako lanaldiak konbinatu ahal izateko, ebazpen honen II. eranskinean ageri den bezala.

4. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea interesa duten toki entitateei, Hezkuntza Departamentuko 0-3 urteko Zikloaren eta Landa Eskolen Atalari eta Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalari, eta Ekonomia

eta Ogasun Departamentuak Hezkuntza Departamentuan duen kontu-hartzailetza delegatuari.

6. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute eskumena duen ordena jurisdikzionalari zuzendua, honako hau jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuari aurreitazko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean.—Hezkuntzako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

I. ERANSKINA

A modulua

—Ordutegi osoa (7 ordu egunero, haurrak bertan direla):

UNIT.	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	LANGILERIA			MODULUA (euro)
			Zuzendaria	Hezitzailea	Garbitzailea	
1	2	0,5	32.059,91	24.098,23	9.477,19	70.354,66
2	3	0,5	32.059,91	48.196,46	9.477,19	99.677,38
3	4	1	32.059,91	72.294,69	18.954,38	138.033,44
4	5	1,5	32.059,91	96.392,92	28.431,57	176.389,49
5	6	1,5	32.059,91	120.491,14	28.431,57	205.712,22
6	7	2	32.059,91	144.589,37	37.908,76	244.068,26
7	8	2	32.059,91	168.687,60	37.908,76	273.390,97
8	9	2	32.059,91	192.785,83	37.908,76	302.713,69
9	10	2	32.059,91	216.884,06	37.908,76	332.036,41
10	11	2,5	32.059,91	240.982,29	47.385,95	370.392,47
11	12	2,5	32.059,91	265.080,52	47.385,95	399.715,19
12	13	2,5	32.059,91	289.178,75	47.385,95	429.037,91

B modulua

—Ordutegi murriztua (6 ordu egunero, haurrak bertan direla):

UNIT.	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	LANGILERIA			MODULUA (euro)
			Zuzendaria	Hezitzailea	Garbitzailea	
1	2	0,5	29.180,45	21.933,68	9.477,19	65.405,19
2	3	0,5	29.180,45	43.867,37	9.477,19	92.652,42
3	4	1	29.180,45	65.801,05	18.954,38	128.933,00
4	5	1,5	29.180,45	87.734,74	28.431,57	165.213,58
5	6	1,5	29.180,45	109.668,42	28.431,57	192.460,83
6	7	2	29.180,45	131.602,10	37.908,76	228.741,41
7	8	2	29.180,45	153.535,79	37.908,76	255.988,64
8	9	2	29.180,45	175.469,47	37.908,76	283.235,89
9	10	2	29.180,45	197.403,16	37.908,76	310.483,13
10	11	2,5	29.180,45	219.336,84	47.385,95	346.763,72
11	12	2,5	29.180,45	241.270,52	47.385,95	374.010,96
12	13	2,5	29.180,45	263.204,21	47.385,95	401.258,20

C modulua

—Lanaldi erdiko ordutegia (4 ordu egunero, haurrak bertan direla):

UNIT.	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	LANGILERIA			MODULUA (euro)
			Zuzendaria	Hezitzailea	Garbitzailea	
1	2	0,5	18.971,66	14.260,34	9.477,19	47.858,06
2	3	0,5	18.971,66	28.520,69	9.477,19	67.747,41
3	4	1	18.971,66	42.781,03	18.954,38	96.670,09
4	5	1,5	18.971,66	57.041,37	28.431,57	125.592,78
5	6	1,5	18.971,66	71.301,71	28.431,57	145.482,13
6	7	2	18.971,66	85.562,06	37.908,76	174.404,81
7	8	2	18.971,66	99.822,40	37.908,76	194.294,16
8	9	2	18.971,66	114.082,74	37.908,76	214.183,50
9	10	2	18.971,66	128.343,09	37.908,76	234.072,85
10	11	2,5	18.971,66	142.603,43	47.385,95	262.995,53
11	12	2,5	18.971,66	156.863,77	47.385,95	282.884,88
12	13	2,5	18.971,66	171.124,11	47.385,95	302.774,23

D modulua. Ordutegi konbinatua duten ikastetxeak (ordutegi osoa/erdia)

Guztirako modulua batuketa honen emaitza izanen da: ordutegi osoko unitateen kopuruari dagokion azpimodulua gehi ordutegi erdiko unitateen kopuruari dagokion azpimodulua gehi ikastetxeko unitate guztien kopuruari dagokion azpimodulua.

—Ordutegi osoko unitateen azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
1	2	0,5	55.105,96
2	3	0,5	78.213,31
3	4	1	101.320,65
4	5	1,5	124.428,00
5	6	1,5	147.535,36
6	7	2	170.642,72
7	8	2	193.750,07
8	9	2	216.857,41
9	10	2	239.964,77
10	11	2,5	263.072,12
11	12	2,5	286.179,47
12	13	2,5	309.286,81

—Lanaldi erdiko unitateen azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
1	2	0,5	13.673,99
2	3	0,5	27.347,96
3	4	1	41.021,94
4	5	1,5	54.695,92
5	6	1,5	68.369,90
6	7	2	82.043,88
7	8	2	95.717,86
8	9	2	109.391,83
9	10	2	123.065,82
10	11	2,5	136.739,79
11	12	2,5	150.413,78
12	13	2,5	164.087,76

—Ikastetxeko unitate guztien kopuruaren azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
2	3	0,5	21.464,08
3	4	1	36.712,78
4	5	1,5	51.961,48
5	6	1,5	58.176,84
6	7	2	73.425,54
7	8	2	79.640,91
8	9	2	85.856,28
9	10	2	92.071,64
10	11	2,5	107.320,35
11	12	2,5	113.535,72
12	13	2,5	119.751,09

II. ERANSKINA

E modulua. Ordutegi konbinatua duten ikastetxeak (ordutegi osoa/murriztua)

Guztirako modulua batuketa honen emaitza izanen da: ordutegi osoko unitateen kopuruari dagokion azpimodulua gehi ordutegi murriztuko unitateen kopuruari dagokion azpimodulua gehi ikastetxeko unitate guztien kopuruari dagokion azpimodulua.

—Ordutegi osoko unitateen azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAIL-LEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
1	2	0,5	55.105,96
2	3	0,5	78.213,31
3	4	1	101.320,65
4	5	1,5	124.428,00
5	6	1,5	147.535,36

UNITATEAK	HEZITZAILEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
6	7	2	170.642,72
7	8	2	193.750,07
8	9	2	216.857,41
9	10	2	239.964,77
10	11	2,5	263.072,12
11	12	2,5	286.179,47
12	13	2,5	309.286,81

–Lanaldi murriztuko unitateen azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAILEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
1	2	0,5	19.962,89
2	3	0,5	33.636,86
3	4	1	47.310,85
4	5	1,5	60.984,82
5	6	1,5	74.658,80
6	7	2	88.332,78
7	8	2	102.006,76
8	9	2	115.680,74
9	10	2	129.354,73
10	11	2,5	143.028,69
11	12	2,5	156.702,68
12	13	2,5	170.376,66

–Ikastetxeko unitate guztien kopuruaren azpimodulua:

UNITATEAK	HEZITZAILEAK	GARBIKETAKO LANGILEAK	MODULUA (euro)
2	3	0,5	21.464,08
3	4	1	36.712,78
4	5	1,5	51.961,48
5	6	1,5	58.176,84
6	7	2	73.425,54
7	8	2	79.640,91
8	9	2	85.856,28
9	10	2	92.071,64
10	11	2,5	107.320,35
11	12	2,5	113.535,72
12	13	2,5	119.751,09

F modulua. Ordutegi konbinatua duten ikastetxeak (ordutegi osoa/murriztua/erdia)

Hiru lanaldi motak baimenduak dituzten ordutegi konbinatuko ikastetxeetan, zeinetan X unitate ordutegi osoak diren, Y unitate ordutegi murriztukoak eta Z unitate lanaldi erdikoak, honako hauen batura izanen da guztirako modulua:

- Modulua: zuzendaria ordutegi osoan (A modulua).
- Modulua: X hezitzaile ordutegi osoan (A modulua).
- Funtzionamendu gastuak ordutegi osoko X unitaterentzat (A modulua).
- Modulua: Y hezitzaile ordutegi murriztuan (B modulua).
- Funtzionamendu gastuak ordutegi murriztuko Y unitaterentzat (B modulua).
- Modulua: Z hezitzaile lanaldi erdian (C modulua).
- Funtzionamendu gastuak lanaldi erdiko Z unitaterentzat (C modulua).
- Modulua: X+Y+Z unitateei dagozkien garbiketala-lanak (A modulua).

G modulua. Ordutegi konbinatua duten ikastetxeak (ordutegi murriztua/erdia)

Bi lanaldi motak baimenduak dituzten ordutegi konbinatuko ikastetxeetan, zeinetan Y unitate ordutegi murriztukoak diren eta Z unitate lanaldi erdikoak, honako hauen batura izanen da guztirako modulua:

- Modulua: zuzendaria ordutegi murriztuan (B modulua).
- Modulua: Y hezitzaile ordutegi murriztuan (B modulua).
- Funtzionamendu gastuak ordutegi murriztuko Y unitaterentzat (B modulua).
- Modulua: Z hezitzaile lanaldi erdian (C modulua).

–Funtzionamendu gastuak lanaldi erdiko Z unitaterentzat (C modulua).

–Modulua: Y+Z unitateei dagozkien garbiketala-lanak (A modulua).

F2002124

39/2020 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Hezkuntzako zuzendaria nagusi-ak emana, zeinaren bidez ezartzen baita zein izanen den, ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko prozeduraren barnean, hurbiltasun linealaren irizpidea, haren balorazioa eta aplikatuko den gehieneko distantzia, zer herritan aplikatuko den eta zein izanen den ikasleen batez besteko gehieneko erlazioa eskola unitate bakoitzeko, bai eta, horrez gain, zein diren prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak ere, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo-ko ikasketak egiteko 2020-2021 ikasturtean.

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 17ko 28/2015 Foru Aginduen 2. oinarriaren 2. atalean eta 5. oinarriaren 4. eta 5. ataletan ezarritakoarekin bat etorri, zehaztu behar da, ikasturte akademiko bakoitzerako, zer herritan aplikatuko den hurbiltasun linealaren irizpidea, haren balorazioa, zein den irizpide hori erabiltzeko kontuan hartuko den gehieneko distantzia, eta zer ikasketatan eta zer ikasmaitatan hartuko den kontuan irizpidea (foru agindu horren bidez onetsi ziren Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo-ko ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak). Bestalde, beharrezkoa da, halaber, prozesuaren jarraibideak eta datak zehaztea ikasturte bakoitzerako.

Orobat, eta bat etorri apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoarekin, bidezkoa da zehaztea Hezkuntza Departamentuak ezarritako plangintzarekin bat ikastetxe bakoitzari esleitutako ikaspostuak, betiere hezkuntza itunetarako ezarritako berariazko arauak betez ikastetxe itunduen kasuan. Foru dekretu horren bidez ikasleak onartzeko arauak ezartzen dira unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan.

Hori guztia eabazpen batean zehaztuko da urtero, zeina eskolatze arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak emanen baitu.

Hori horrela, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoak ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo-ko ikasketetan gehieneko distantzia linealaren irizpidea aplikatzea 2020-2021 ikasturterako, ikasketa horiek ematen dituzten eta udalerrri hauetan dauden ikastetxeetan: Iruña, Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Zizur, Eguesibar, Ezkabarte, Galar, Uharte, Noain (Elortzibar), Oltza Zendea, Orkoiain, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

2. Hurbiltasun linealaren irizpideari dagokionez, zeina zehaztuta baitago Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 17ko 28/2015 Foru Aginduen 5. oinarriaren 4. eta 5. ataletan, honako hau ezartzen da 2020-2021 ikasturterako: hurbiltasun linealaren irizpidea erabiltzeko gehieneko distantzia lineala 1500 metrokoa izanen da. Distantzia hori kalkulatzeko, eskatzaileak aukeratu du, alde batetik, bere benetako bizilekuaren UTM koordinatuak edo, bestela, gurasoetako baten edo legezko tutoretako baten benetako lantokiaren UTM koordinatuak, eta, bestetik, lehenengo aukera bezala eskatutako ikastetxearen UTM koordinatuak. Kalkulu hori egiteko, eskola kudeaketako EDUCA sisteman dagoen geolokalizazio tresna erabiliko da, zeina Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sisteman oinarritzen baita.

3. Hurbiltasun linealaren irizpidea 0,5 punturekin baloratzea.

4. Irizpide hori aplikatzean kontuan izanen da zer ezarri den Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan.

5. Gehienez ere talde bakoitzeko 30 ikasle/taldeko ratioa ezartzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako, eta 33 ikasle/taldeko ratioa Batxilergo-ko, bat etorri Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 157.1.a artikuluan ezarritakoarekin. Gertatuz gero eabazpen hau onesten den unean ikastetxeren batek ratio handiagoa izatea, ezin izanen dira bajak ordeztu baldin eta horrek arestiko ratioa gainditzea badakar.

6. Ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedurarako jarraibideak, egutegia eta eskaera ereduak onestea, 2020-2021 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo-ko ikasketak egin ditzaten; eabazpen honen I., II., III. eta IV. eranskinetan jaso dira jarraibideak, egutegia eta eskaera ereduak.

7. Ikaspostua hizkuntza-eredu jakin batean eta ikastetxe publiko batean eskatzen dutenek garraio eta jantokirako eskubidea izanen dute

eskatutakoa eman ezean, betiere eskaerak Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 13ko 102/2017 Foru Aginduaren 2. artikuluko baldintzak betetzen baditu, eta Hezkuntza Departamentuak antolakuntza arrazoiengatik ezin badu ikaspostu bat esleitu hizkuntza-eredu horretan eskatzailearen bizilekuari dagozkion erreferentziako ikastetxe publikoetan, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

8. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzura, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzatza Zerbitzura, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, Azterlan Ekonomikoen eta Nominen Zerbitzura, Hezkuntzako

Azpiegituren Zerbitzura, Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzura, Hezkuntzako Informazio Sistemien Zerbitzura, Lanbide Heziketaren Plangintza eta Berrikuntzarako Zerbitzura eta Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusira, behar diren ondorioak izan dituzten.

9. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahalko da, Hezkuntzako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita.

10. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 14an.–Hezkuntzako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

I. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO JARRAIBIDEAK	
IKASPOSTUA ESKATzea	<ol style="list-style-type: none"> Ikastetxeek zigitua daraman fotokopia eman diote eskatzaileari, eskabidea zein egunetan sartu den adierazita duela. Aurreinskripzioa egiteko eskabidearekin batera, errola agiria aurkeztu behar da. Bertan, gutxienez ere, ikaslearen izena eta aitaren edo/eta amaren edo legezko tutorearen izena agertuko dira. Etxebizitza berean bizi beharko dute. Lantokia egiaztatzeko, enpresaren titularrak egindako dokumentua aurkeztu behar da, zeinean zehaztuko baita non dagoen lantokia eta zer lan zerbitzu eskaini ohi duen bertan. Langile autonomoek EJZ aurkeztu beharko dute (Ekonomia-jardueren gaineko Zergan alta hartuta dagoela dioen agiria), herriko udalak egina. Dokumentu hori 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izanen da. Nafarroako Parlamentuaren ebazpena eta Nafarroako Arartekoaren gomendioa kontuan hartuta, Pirinioetako DBHletatik (Garralda, Erronkari eta Otsagabia), eremu ez euskalduneko ikasleentatik eta Lekaroz BHIko A eredutik heldu diren Batxilergoko 1. mailako eskatzaileek, onartuak izateko baremoaren ondorioetarako, hautatu duten ikastetxearen helbidea balia dezakete ikasketak hizkuntza-eredu berean jarraitzeko. Nafarroako Arartekoaren gomendioa kontuan hartuta, Arte Batxilergoko modalitatearen 1. mailako eskatzaileek, onartuak izateko baremoaren ondorioetarako, hautatu duten ikastetxearen helbidea balia dezakete. Eskatzaileek zalantza badute ikaslearen promozioaren gainean, inprimaki berean egin daiteke onartzeko eskaera bai ikasmilaz igarotzeko bai errepikatzeko. Ikastetxeek EDUCA bidez sartuko dituzte eskaera guztiak horretarako dagoen epean, puntu guztiak beteta dituztela. Nahitaez igorri eta jakinarazi behar da matrikulen aurreikuspena horretarako ezarritako epean, EDUCA programako "Ikastetxearen eskaintza (VII. eranskina)" atalaren bidez.
ESKAERAK AURKEZTEA ETA BANANTZE ETA DIBORTZIO KASUAK (112/2013 F.A.)	<ol style="list-style-type: none"> Eskaera baliozkotzat eta eraginkortzat joko da kasu hauetako batean baldin badago: <ol style="list-style-type: none"> Bi gurasoen sinadurarekin eginikoa. Horieta bategin eginikoa, baldin laukitxo hau markatu badu: nire erantzukizunpean adierazten dut gurasoak/tutoreak bat gatzela eskaera honekin. Horieta bategin eginikoa, baldin laukitxo hau markatu badu: gurasoak/tutoreak banantze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela deklaratu dut, eta ebazpen judiziala edo indarra duen dokumentazioa aurkezten dut, ahalmena ematen didana nik neuk bakarrik aukeratzeko semearen edo alabaren ikastetxea. Horretaz gain, aipatu dokumentazioa aurkeztu beharko du eta hartatik deduzituko da erabakia berari bakarrik dagokiola. Agiri horietatik ez bada ondorioztatzen erabakia soilik berari dagokiola, eskabidea tramitatuko da baldin eta banantze edo dibortzio egoeretan daudela ikastetxeek nola jardun behar duten arautzen duten jarraibideetan eskolatzeari buruzko zatian (1. atala) ezarritako irizpideen arabera ulertu badaiteke bi gurasoek onartzen dutela eta egoera hori emandako agiriekin egiaztatuta bada. Gainerako kasuetan eskatzaileari errekerituko zaio eskaera osa dezan, ohartaraziz eskaera bertan behera geldituko dela baldin eta adierazitako epean osatzen ez badu.
JAIEGUNAK	<ol style="list-style-type: none"> Ebazpen honen II. eranskinean adierazitako datak aginduzkoak dira. "Bukaera eguna" jaieguna bada ikastetxe batean, jai ez den hurrengo egunera aldatuko da, eta behar duen publizitatea emanen zaio.
IRIZPIDE OSAGARRIA (hurbiltasun lineala)	<ol style="list-style-type: none"> Bat etorritik 28/2015 Foru Aginduak, zeina abenduaren 29ko 141/2016 Foru Aginduak aldatu baitzuen, bere 5. oinarriaren 4. eta 5. ataletan ezarritakoarekin, eta aintzat hartuz Arartekoaren gomendioa, ikastetxe bakoitzeko organo eskudunak 0,5 puntu emanen dizkio eskatzaileari baldin eta bere helbidetik edo gurasoetako baten edo legezko tutoreetako baten lantokitik lehenbizi eskatutako ikastetxera dagoen distantzia ebazpenean hurbiltasun lineal gisa ezarritako distantzia bera edo horik beharago bada, kontuan izanik eskatzaileak puntuazioa kalkulatzeko aukeraturako helbidean, bizitokia den kasuetan, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenago egon behar duela alta emanda, eta lantokia den kasuetan, bertan zerbitzu ematen ari behar duela 2019ko abenduaren 31n.
ESKAERAKO DOKUMENTAZIOA	<ol style="list-style-type: none"> Kasuan kasuko eskabide eredu ofizialetan jasotzen dena, ukatu gabe atzeritarrek derrigorrezkoa ez den irakaskuntza sisteman Espainiakoen baldintza berberetan sartzeko duten eskubidea, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera.
ONARTZEKO BAREMOA	<ol style="list-style-type: none"> Jendaurrean egon beharko dute, bai barematzeko irizpideek, bai erreklamazioen bat egin ahal izateko ezarri den prozedurak. Dokumentuz egiaztatzen ahal diren irizpideak bakarrik onartuko dira baremorako. 2018. urteko lanbide arteko gutxieneko soldata 10.302,6 eurokoa da. Errenta aitopena aurkeztuz gero, balidazio mekanikoaren kodea izan beharko du. Per capita errenta kalkulatzeko, ondoan heldu diren jarraibideak hartuko dira kontuan, dagoekin atalean. Per capita errenta kalkulaturik, EDUCA aplikazioaren dagoekin laukitxoan sartuko da balio hori. <ol style="list-style-type: none"> Errenta tartek eta EDUCA bakoitzari emandako puntuazioa ondoko hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> –Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada per capita errenta (5.151,3 euro): 1,5 puntu. –Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta soldata horren hiru laurdenak edo txikiagoa bada per capita errenta (7.726,95 euro): 1,0 puntu. –Lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada per capita errenta (10.302,6 euro): 0,5 puntu. –Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada per capita errenta: 0 puntu. Minusbaliotasun maila, %33koa edo handiagoa, dokumentu hauetako baten bidez frogatuko da: <ol style="list-style-type: none"> Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena edo ziurtagiria. (Nafarroan, gaur egun, Eskubide Sozialetako Departamentua da). Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena (GSIN), ezintasun iraunkor osoagatik, ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena. Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkoragatik edo lanerako ezigaitasunagatik erretiro pentsioa esleitzen duena. Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emandako txartela, desgaitasun maila aitortzen duena, identifikatzeko baliozko dokumentu batekin batera. Legez familia ugaria izatea horretarako ezarritako titulu ofizialaren bidez egiaztatuko da. Eskaerak hartzeko epea bukatutik, horiek ezin izanen dira aldatu, eta ez da onartuko baremoan eragin dezakeen dokumentazio gehiago. Onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak EDUCAtik ateratuko eredu erabiliz emanen dira aditzera, eta ikastetxean, toki ageri batean, erakutsiko dira. Zerrendak argitaratu aurretik, ikastetxeek EDUCAren bidez jakinarazi beharko dute onartu izana. Baxilergo eskatzen duten ikasleek ikasketa espediente aurkeztuko dute eskaera egiten dutenean. Aurtengo ikasturtean matrikula DBHko 4. mailan egin duten ikasleek ikasketa espediente aurkeztuko dute, DBHko 3. maila bitartean kalkulaturako batezbesteko aritmetikoarekin. Gainerako ikasleek Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 17ko 28/2015 Foru Aginduaren 11. oinarrian xedatutakoa beteko dute.
PER CAPITA ERRENTAREN KALKULUA, ONARTZEKO BAREMOAREN ONDORIOETARAKO	<ol style="list-style-type: none"> Ondorio horietarako, familia unitatearen errentatzat hartuko da (dira) likidazio oinarri osoa(k) (NFK-ko errenta aitopenaren 525 laukia). Ondorio horietarako, familia unitateat hartuko da aitopenaren lehen orrialdean ageri den familia kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Ondorio horietarako, familia unitatearen per capita errenta kalkulatu da likidazio oinarri osoa (apartatu honetako 1. puntua) zati familia kideen kopurua eginik (apartatu honetako 2. puntua).

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO JARRAIBIDEAK	
GIZARTE ETA KULTURA EGOERA AHULEAN DAUDEN DBH-KO IKASLEENTZAKO ERRESERBA	1. Erreserbatutako ikaspostu horiek eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da herriko oinarriko zerbitzuaren txostena aurkeztea.
BESTELAKO ERRESERBAK	1. Ikasleak beste ikastetxe batera joan daitezke atzerriko hezkuntza bat ikastera. Hori errazteko, ikastetxeek matrikulatuta utzi dituzte ikasle horiek haien ikaspostuetan, gehienez ere ikasturte batez. Epe hori igarota, eta ikaslea ikastetxera itzuli ez bada, zegokion ikaspostua galduko du. 2. Behin matrikulatuta, aurreko puntuan aipatutako ikasleak ikastetxeari eman beharko dio horren berri, eta esan zer herrialde eta herritan dagoen ikastetxea eta zein izen duen.
JENDAURREKO ZOZKETA	Apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituena, 15. artikuluan ezartzen du ezen, berdinketa gertatuz gero, zozketa eginen dela organo eskudunaren aurrean. Jendaurreko zozketa hori Hezkuntza Departamentuan egin zen (San Domingo kalea z.g.) 2020ko otsailaren 14an, inplikaturik dauden ikastetxeei deia egin ondoren. 1. Jendaurreko zozketarako prozedura: a) Zerrenda bat egin zen Nafarroan inskribatutako eta matrikulatutako ikasle guztiekin, eta bakoitzari zenbaki bat eman zitzaion. b) Gero, zenbaki bat atera zen, ikasle batena zena. c) Ikasle horren izenak eta deituek zehaztuko dute norengandik hasita zehaztuko den plazak esleitzeko lehentasun alfabetikoa. d) Urte berean jaiotako anai-arreben eskaeren kasuan, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 17ko 28/2015 Foru Aginduaren 5. oinarriko 7. atalean ezarritakoari jarraituko zaio. e) Zozketaren emaitzaren arabera osatuko da onartuen zerrenda. f) Plazak huts guztiak esleitura direla, prozedura berari jarraituko zaio itxaron zerrenda osatzeko, zozketan parte hartzen dutenen zerrenda bukatu arte. g) Esleitutako plazetan batzuk hutsik geratuz gero, zerrenda hori erabiliko da. h) Aurreko prozedura horri guztiari buruzko akta eginen da, eta bertan jasoko da zozketaren emaitza.
IKASLEAK ALFABETIKOKI ORDENATZEKO IRIZPIDEAK, BERTINKETAK EBATZI BEHAR DIREN KASURAKO	Ikasle guztiak ordenatzeko kontuan hartzen dira, lehenengo eta behin, abizenak, eta, bigarrenik, ponte-izena, EDUCAREN ordena irizpideen arabera, hau da: 1. Ikasleek abizen bakarra badute, abizen horrez gain beste bat ere daukatenean atzetik jartzen dira. 2. Aurrikia duten abizenak eta abizen konposatuak: preposizioak, kontrakzioak, artikulua eta zenbait abizenen parte diren bestelako hitzak abizen bakoitzaren osagarritzat hartzen dira. Kasu horietan, zuriunea a letraren aurreko karakteretzat hartzen da. 3. Letra larriak, tiletak, apostrofoak eta marrazkoak ez dira aintzat hartzen ordenatzeko garaian.
BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK	1. Zer ikastetxetan egin den aurreinskripzioa, hango zuzendari titularri zuzenduko zaizkio behin-behineko zerrendari egiten zaizkion erreklamazioak, ebazpen honen II. eranskinean ezarritako epeko azken eguneko 14:00ak baino lehen.
MATRIKULATZEKO DOKUMENTAZIOA	1. Epe arruntean eta berezian nahiz ikasturtea hasita dagoela ikastetxe batean sartzen diren ikasle berriek matrikula egiteko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute: 1.1. Erroldaren ziurtagiria edo bolantea aurreinskripzioaren orriarekin batera aurkeztuko da ikastetxean, horretarako ezarritako epeetan. 1.2. Txerto txartela edo zein txerto dosi hartu diren edo zein osasun azterketa egin zaion adierazten duen beste agiri mediko bat. 1.3. Osasun txartelaren fotokopia. 1.4. Egindako osasun azterketen txostenak, ikasleak minusbaliotasunik, eritasunik edo beste osasun arazorik baldin badu, ikastetxeak jakin beharrekoak (txosten audiometrikoak, otorrinologikoak, oftalmologikoak eta abar). DBH-RAKO: 1.5. Familia-liburuaren edo jaiotza-ziurtagiriaren edo horien baliokidearen fotokopia eta, ikastetxeak erka ditzan, jatorrizko agiriak. 1.6. Eskaera eta matrikulazio tramiteei dagozkien prozesu eta dokumentazio guztietan, ikaslearen izen-deiturak bat etorriko dira familia-liburuaren edo jaiotza-ziurtagiriaren edo horien baliokidearen agertzen direnekin. BATXILERGORAKO: 1.7. NANaren, ALZaren, atzeritarren nortasun txartelaren edo ikasle txartelaren fotokopia edo haien parekoarena. 1.8. Eskaera eta matrikulazio tramiteei dagozkien prozesu eta dokumentazio guztietan, ikaslearen izen-deiturak bat etorriko dira aipatutako dokumentazioan agertzen direnekin. 1.9. Atzeritarrek derrigorrezkoa ez den irakaskuntza sisteman Espainiakoen baldintza berberetan sartzeko duten eskubidea galarazi gabe, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera. 1.10. Ikasketa espedienteak: Ikaslearen historiala eta/edo honako hauen fotokopia konpultsatua: Oinarriko Hezkuntzaren Eskolatzeko Liburuaren 25. eta 27. orrialdeena, Batxilergoko Kalifikazio Liburuaren 12. eta 13. orrialdeena edo Lanbide Heziketako Kalifikazio Liburuaren 7. edo 8. orrialdeena, dagokionaren arabera, edo, hala denean, ikasketa espedientearena.
ITXARON ZERRENDAK	1. Epe arrunteko nahiz bereziko itxaron zerrenden indarraldia aurreinskripzioa egiten den urteko urriaren 31 bitartekoa da.
ATZERRIKO HEZKUNTZA SISTEMETATIK DATOZEN IKASLEAK BATXILERGOAN SARTZEA	1. Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleek, eskubidearekin batera, ikastetxean aurkeztu beharko dute ikasketak homologatzearen baldintzapeko bolantea edo behin betiko kredentziala, zeinetan ageri den kalkulaturako batez besteko nota.
EPE BEREZIA	1. Epe arruntean herrialdez edo bizilekuz aldatu direlako eskaera egin ez duten ikasleek bakarrik izanen dute eskaera epe berezian aurkezteko aukera. 2. Bizilekuz aldatu izana frogatzeko, erroldaren ziurtagiria edo bolantea aurkeztuko da, aurreinskripzioaren epe arrunta itxi ondoren bizileku berrian alta hartu izana erakusteko. Ondorio horietarako, helbide aldatuta justifikatzeko, posta kodearen aldatuta egon behar du.
EPETIK KANPO ESKOLATZEA	1. Epe arruntaren eta bereziaren ondotik bizilekuz aldatzeagatik ikastetxerik aldatu beharra justifikatua duten ikasleek bakarrik eskatzen ahalko dute plaza. Egoera hori dokumentu bidez frogatuko da. 2. Ikastetxe guztiek eman eta jaso beharko dituzte eskabideak, plaza hutsik izan edo ez, eta berehala tramitatuko dituzte behar diren oharrekin, Hezkuntza Departamentuari ikasle horiek eskolatzen laguntzearen.
LANBIDE HEZIKETAN IZENA AURRERAZ EMAN DUTEN DBH-KO ETA BATXILERGOKO IKASLEAK	1. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak behartuak daude Lanbide Heziketako ikastetxeei jakinaraztera zein den titulua erdietsi duten ikaslearen batez besteko nota. Ikasleak beharturik daude lehen aukeran eskatutako ikastetxean hori aurkeztera, ondorio horretarako adierazitako egunetan. Batez besteko notarako kontuan izanen dira DBHko lau ikasturteen baliokideak diren kurtsoen notak erdi mailako zikloetarako, eta Batxilergoko bi kurtsoenak goi mailako zikloetarako.
DERRIGORREZKO ESKOLATZEALDIAN DAUDEN IKASTETXEKO IKASLEAK ETA, MATRIKULAEZ EGITEAZ GAIN, BESTE IKASTETXE BATEAN MATRIKULATUTA EZ DAUDEN IKASLE ATXIKIAK	1. Ikastetxeek IV. eranskina bidali beharko dute Eskolatzeko Bulegora behar bezala beteta, egutegian ondorio horretarako adierazitako egunean. 2. Honako helbide honetara bidali beharko dute: nescolar@navarra.es
KOMUNIKAZIO BIDEAK	–Helbide elektronikoa: nescolar@navarra.es –Gurasoei eta ikasleei aholkuak eta orientazioa ematea: 848 42 66 17. –Tramitazio eta onarpen kontuak, ikastetxeentzat: 848 42 69 77.

II. ERANSKINA

2020-2021 ikasturtea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako / Batxilergoko Ikasleak onartzeko prozesuaren egutegia

PROZESUA	HASIERA EGUNA	BUKAERA EGUNA	
EPE ARRUNTA			
Eskabideak igortzea eta/edo hartzea atxikipen zentroan	Martxoaren 30a	Apirilaren 3a	
Ikastetxean inskribatzeko epea	Apirilaren 20a	Apirilaren 24a	14:00ak arte

PROZESUA	HASIERA EGUNA	BUKAERA EGUNA	
Aurreinskribatutako ikasleen datuak EDUCA bidez sartzea		Apirilaren 30a	
Onartutako ikasleen behin-behineko zerrenda ikastetxean jartzea, ongi ikusteko moduko toki batean. Onartutako ikasleak nondik datozen ikastetxeei jakitera ematea (Educa)		Maiatzaren 4a	
Ikastetxean onartuen behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioak egiteko egunak	Maiatzaren 5a	Maiatzaren 6a	14:00ak arte
Ikastetxeak ebaztea behin-behineko zerrendari jarritako erreklamazioak		Maiatzaren 7a	
Onartutako ikasleen behin betiko zerrenda ikastetxean jartzea, ongi ikusteko moduko toki batean		Maiatzaren 8a	
VII. eranskina ("Matrikularen aurreikuspena, aurreinskripzio-epe arruntaren ondoren") EDUCA bidez igorri eta jakinaraztea		Maiatzaren 8a	
Onartu gabeko ikasleak: Hezkuntza Departamentuak tokiak esleitzea		Maiatzaren 22a	
Ikasleak matrikulatzea	Ekainaren 24a	Uztailaren 13a	12:00ak arte
VII. eranskina ("Ekaineko matrikularen aurreikuspena") EDUCA bidez igorri eta jakinaraztea		Uztailaren 13ra arte	
EPE BEREZIA			
Ikastetxean inskribatzeko epea	Irailaren 1a	Irailaren 2a	14:00ak arte
Azken eguna aurreinskribatutako ikasleen datuak EDUCA bidez sartzeko		Irailaren 4a	
Onartutako ikasleen behin-behineko zerrenda ikastetxean jartzea, ongi ikusteko moduko toki batean. Onartutako ikasleak nondik datozen ikastetxeei jakitera ematea (Educa)		Irailaren 4a	
Onartuen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak	Irailaren 7a	Irailaren 9a	14:00ak arte
Ikastetxeak ebaztea behin-behineko zerrenda		Irailaren 10a	
Onartutako ikasleen behin betiko zerrenda ikastetxean jartzea, ongi ikusteko moduko toki batean. Onartutako ikasleak nondik datozen ikastetxeei jakitera ematea (Educa)		Irailaren 10a	
VII. eranskina EDUCA bidez igorri eta jakinaraztea: "Irailako matrikularen aurreikuspena"		Irailaren 10a	
Epe berezian onartutako ikasleen matrikula	Irailaren 11	Irailaren 14a	14:00ak arte
Onartu gabeko ikasleak: departamentuak plazak esleitzea		Irailaren 18a	
DBH-KO IKASLEAK: Eskolatzeko Bulegora igortzea ikastetxeko ikasleen eta, matrikula ez egiteaz gain, beste ikastetxe batean matrikulatuta ez dauden ikasle atxikiaren zerrenda (IV. eranskina)		Irailaren 21a arte	

III. ERANSKINA

[Batxilergoan izena emateko eskabidea](#). 2020/2021 ikasturtea (PDFa).

IV. ERANSKINA

[Ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak eta, matrikula ez egiteaz gain, beste ikastetxe batean matrikulatuta ez dauden ikasle atxikiak](#) (PDFa).

F2002562

JENDAURREKO INFORMAZIOA, Esan goi tentsioko instalazio elektrikoak jartzeko administrazio baimenari buruzkoa, proiektuaren onespenerari buruzkoa eta zehazki haren onura publikoa deklaratzeari buruzkoa. Espedientea: SAT11070.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54., 55. eta 56. artikuluetan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 125. eta 144. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUren eskaera, goi tentsioko honako instalazio elektriko honi administrazio baimena eman, proiektua onetsi eta zehazki haren onura publikoa deklaratzeko:

- Instalazioaren kokalekua: Esako udal-mugartea.
- Xedea: matxuren arriskua ekiditea aireko linea elektriko batean.
- Ezaugarri nagusiak: "Zangoza-Esa" 13,2 kV-eko aireko linea elektriko berritzea, 712. eta 751. euskarrien arteko tartean, Esako udal-mugarrean.
- Aurrekontua: 104.740,03 euro.

Onura publikoaren deklarazioak berekin du ondasunak okupatu beharra edo ukitutako eskubideak eskuratu beharra, eta presako okupazioa behartuko du, ondorioak izan ditzan Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua. Enpresa eskatzailea onuradun bihurtuko da desjabetze espedientearen, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 2.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Espedientea jendaurrean egonen da Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuan, interesdunek azter dezaten eta, bidezko bada, idatziz egin ditzaten egoki iruditzen zaizkien alegazioak, iradokizunak edo oharak, 20 egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an.–Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko zuzendaria, Laura Larraya Irigoyen.

ZANGOZA-ESA 13,2 KV-EKO AIREKO LINEA ELEKTRIKOA BERRITZEA, 712. ETA 751. EUSKARRIEN ARTEKO TARTEAN, ESAKO UDAL-MUGARTEAN (NAFARROA)

Ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda

FINKAREN KODEA	TITULARRA/K	UKIPENAK					KATASTROKO DATUAK			
		EUSKARRIAK			LINEAREN LUZ.	LURGAIN-ZORT.	OHARRAK	POL.	LURZ.	LUR MOTA
		Un.	m ²	Zk.	m	m ²				
Esako udal-mugartea										
YE-01	Esako Udalaren herri-lurrak René Petit kalea 9. 31410 Esa (Nafarroa)	9	11,65 0,49 0,56 0,56 0,56 1,54 0,56 0,56 1,21	713 716 718 719 720 721 722 723 724	1.091	5.946	Dagoen lurgain-zortasuna	1	751	Basoa-Larreak
YE-02	Nafarroako Foru Komunitatea (Ekonomia eta Ogasun Departamentua). Jabetza soila Karlos III.aren etorbidea 4. 31002 Iruña	14	1,17 0,64 1,32 1,32 0,42 0,56 0,56	725 726 727 728 729 730 731	1.368	7.568	Dagoen lurgain-zortasuna	1	385	Basoa-Larreak

FINKAREN KODEA	TITULARRA/K	UKIPENAK				KATASTROKO DATUAK				
		EUSKARRIAK			LINEAREN LUZ.	LURGAIN- ZORT.	OHARRAK	POL.	LURZ.	LUR MOTA
		Un.	m ²	Zk.	m	m ²				
			1,32	732						
			1,00	733						
			0,64	734						
			1,00	735						
			1,17	736						
			1,17	737						
			12,11	738						
	San Benitoren Kongregazioa (Leireko monasterioa). Gozamen- duna. 31410 Esa (Nafarroa)									

Laburdurak: Linearen luz.: linearen luzera; Lurgain-zort.: lurgain-zortasuna; Pol.: poligonoa; Lurz.: lurzatia.

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

OLTZA ZENDEA

Aldaketa 2019ko lan publikoaren eskaintzan

Honen bidez aditzera ematen da ezen Oltza Zendeako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2019ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuela:

Lehena.—Aldatzea Oltza Zendeako Udalaren 2019ko lan publikoaren eskaintza, Udaleko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 23an onetsia, zerbitzu anitzak-lorezaintzako beste lanpostu bat gehitzeko (guztira 2 lanpostu) ordezte-tasaren kargura.

Lanpostuaren izena: Zerbitzu anitzak-lorezaintza (hutsik). Lanpostu kopurua: 2. Araubide juridikoa: LKF. Maila: D. Sarbidea: OL. Nahitaezkoa/ Merezimendua: Merezimendua. Hizkuntza-Eskakizuna: B1. Betetzeko aurreikuspena: 2020.

Bigarrena.—Lan publikoaren eskaintza argitaratzea udal honen egoitza elektronikoan, iragarki-taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, denek jakin dezaten eta interesdunek egokitatzat jotzen dituzten errekursoak jar ditzaten, kasua bada.

Hirugarrena.—Erabaki honen kontra, errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke, hautara: a) Berraztertze errekurtsioa, egintza egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-arekiko auzien Epaitegian edo Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; edo c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Oltza Zendea, 2019ko abenduaren 30ean.—Alkatea, Moisés Garjón Villanueva.

L2002061

OTSAGABIA

Deialdia, Zaraitzuko Ibaxa zahar etxean bi gerokultore lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Zaraitzuko Ibaxa Zahar Etxearen Patronatua izeneko erakunde autonomoak, 2019ko abenduaren 23an egindako bilkuran, onetsi zuen deialdi bat egitea, oposizio-lehiaketa bidez bete daitezten 2 lanpostu zainzaile laguntzaile izateko Zaraitzuko Ibaxa zahar etxean:

Hona hemen deialdiaren,

OINARRIAK

1.—Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da oposizio-lehiaketa bidez betetzea 2 lanpostu zainzaile laguntzaile izateko Zaraitzuko Ibaxa zahar etxean. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak horretarako igortzen duen zerrendako izangaien artean gauzatuko da oposizio-lehiaketa, eta izangai horiek bete beharko dituzte lanposturako behar diren baldintzak, bat etorri ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2.d) artikularekin.

1.2. Izendapenak lan-kontratadun finko bilakatuko du izendatua, indarreko xedapenek ezartzen dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.3. Izendatuak jasoko du D mailari dagokion urteko ordainsari gordina, bai eta osagarriak ere, ezarrita daudenak Zaraitzuko Ibaxa zahar etxearen plantilla organikoan eta lan hitzarmenean.

1.4. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute.

2.—Izangaiak bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

b) Orobat, parte hartzen ahalko dute Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko beste estatuak edo aipatu nazioarteko tratatuek

ukitutako estatuak herritarren ezkontideek, baldin zuzenbidez bereziak ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ere, baldin eta zuzenbidez bereziak ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

c) 16 urtetik gorakoa izatea eta nahitaezko erretirorako adina ez izatea.

d) Ez izatea karguaren eginkizunetan aritzea galarazten dion eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik.

e) Desgaitua edo gabetua ez egotea eginkizun publikoetan jarduteko, eta ez egotea administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia.

f) Titulu edo ziurtagiri hauetako bat edukitzea:

—Profesionaltasun ziurtagiria edukitzea gizarte erakundeetan mendokotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa emateko, edo hura lortzeko prozesuan egotea.

—Mendokotasuna duten pertsonen arreta egiteko teknikaria izatea, edo titulua lortzeko prozesuan egotea.

—Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria izatea, edo horren titulua lortzeko prozesuan egotea.

—Gizarte Integrazioa goi mailako teknikaria izatea.

d) Behar den gaitasun fisiko edo psikikoa izatea bete behar diren eginkizunetan aritzeko.

e) Desgaitua edo gabetua ez egotea eginkizun publikoetan jarduteko, eta ez egotea administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia.

2.2. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak aurkeztu beharko dute zinpeko aitopena edo hitzematea, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik galarazten dienik beren estatuko Funtzio Publikoan sartzea.

2.3. Baldintza horiek guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratazioarako deia jasotzen duten izangaiak, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.

2.4. Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, galarazi gabe euren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra.

2.5. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira aurreko baldintzak, eta hautapen-prozesuak eta kontratazioak iraun bitartean ere bete beharko dira.

3.—Eskaerak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkeztu beharko dira Zaraitzuko Ibaxa Zahar Etxearen Patronatuaren egoitzan eta Otsagabiko Udalean, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako edozein baliatuz (lege horrek tratatzen du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea), hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik.

3.2. Eskabideak lotuko zaizkio deialdi honetako I. eranskinean argitaratutako ereduari.

4.—Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Alkatetzak ebazpena emanen du, onesteko izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, eta aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. Baztertutako erreklamazioak egiten ahal dituzte edo akatsak zuzendua, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodu-nean.

4.2. Erreklamazioetarako epea amaitutakoan eta horiek ebatzita, alkateak ebazpena emanen du, onesteko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta adierazteko oposizioaldiaren lehenbiziko ariketa egiteko eguna, ordua eta tokia. Orobat, aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. Ondoren, epaimahaiak argitara emanen ditu gainerako ariketak egiteko iragarkiak, erregelamenduak agintzen duen moduan.

5.—Kalifikazio epaimahaia.

5.1. Kalifikazio epaimahaia honako hauek osatuko dute: Mahaiburua: Patronatuko burua: Maria del Carmen Recalde Berrade.

Ordezkoa: Raket Zoko Lamarka.
Teknikaria: Arancha Beorlegui.

Teknikaria: Beatriz Lacabe.

Teknikaria: Zahar etxeko zuzendaria: Elvira Ruiz Recalde.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, gutxienez ere kideen gehiengo osoa bertan ez bada.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa izan dezaten beharrezkoa izanen da bertan egotea epaimahaiburua edo idazkari lanak egiten dutenak eta, gutxienez, kideen erdiak.

5.3. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta organo deitzaileari hala adierazi, baldin suertatzen badira abstenitzeko arrazoia, aurreikusiaik daudenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengo ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak.

5.5. Epaimahaia aholkulari espezialisten laguntza eska dezake proba baterako edo guztietarako. Aholkulari horien laguntza norberaren espezialitate teknikora mugatuko da.

6.–Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.

6.1. Lehiaketaldia:

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko dira deialdi honen II. eranskinari jarraituz. Emaiza ez da baztergarria izanen, eta gehienez ere 40 puntu lortzen ahalko dira.

Euskara maila neurtzeko proba. Merezimendu gisa baloratuko da, eta bi modutan frogatu daiteke: gaitasun agiri bat aurkeztuz, hizkuntza-eskola ofizialek emana, edo bestelako entitate ofizial batek, edo Euskarabideak prestatutako proba berariazko bat eginez, egoki den hizkuntza eskakizuna frogatzeko. Ahozkoan B2 maila frogatzen bada eta idatzizkoan B1 maila, 10 puntu emanen dira gehienez, eta maila apalagoak arabera baloratuko dira.

Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dituzte izangaiek. Horretarako, aurkeztu beharko dira jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatutako, bestela ez baitira kontuan hartuko. Merezimenduak aurkeztu beharko dira lehen ariketa egin baino lehen, Zaraitzuko Ibaixa zahar etxearen bulegoetan, eta, horretarako, instantzia aurkeztuko da bertako erregistroan.

%33ko desgaitasun maila edo handik gorakoa aitortua dutenek 5 puntu gehigarri izanen dituzte.

6.2. Oposizioaldia:

Proba teorikoa: erantzun beharko zaie aukera anitzeko test motako 50 galderari, frogatzeko izangaia zer ezagutza duen zaintzaile/gerokultorearen eginkizunez. Galderek ez dute penalizaziorik izanen, eta gehienez ere 50 puntu lortzen ahal dira.

Zuzen erantzundako galdera bakoitzari puntu 1 emanen zaio.

Proba praktikoa: ariketa bat egin beharko da, frogatzeko izangaia zer abilezia duen zaintzaile/gerokultorearen eginkizunetan. Gehienez ere 10 puntu lortzen ahal dira.

7.–Emaitzak.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa emanik, epaimahaia jendaurrean jarriko du probak gainditu dituzten izangaia zerranda, Udalaren webguneko iragarki-taulan eta ariketa egin den tokian. Zerranda ordenatuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, behin batu ondoren oposizio ariketetan eta lehiaketaldian ateratako kalifikazioak. Bestetik, izendapen proposamena eginen du.

7.2. Otsagabiko Udalak izendatuko du epaimahaia proposatutako izangaia, eta aginduko du izendapen proposamena argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Proposaturiko izangaia honako agiri hauek ekarri beharko ditu, izendapen proposamena argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaia nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdian eskatu den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideen ordainagiriarena.

c) Osasun ziurtagiri ofiziala, frogatzen duena interesdunak ez duela eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik lanpostuko eginkizunak betetzea eragozten dionik.

d) Zinpeko aitortpena, erakusten duena ez dagoela desgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dutela baztertu inongo administrazio publikoren zerbitzutik.

7.3. Proposatutako izangaia ez baditu agiri horiek aurkezten aipatutako epean, behar bezala arrazoituriko ezinbesteko kasuetan izan ezik,

ez da izendatuko, eta egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, galarazi gabe eskabidean egindako faltsukeriagatik dagokion erantzukizuna.

7.4. Aurreko apartatuan azaldutakoa gertatuz gero, 7.1 apartatuan aipatzen den zerrendan ondo-ondotik heldu den izangaia beteko du hutsunea, eta harekin ere aurreko apartatuetako prozedura bera erabiliko da.

8.–Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Hautatze prozesua bukatutakoan, Otsagabiko Udalak aukeratutako izangaia izendatuko du.

8.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendatutako izangaia lanpostuaz jabetu beharko du, izendapena jakinarazi eta hilabeteko epearen barrenean. Epe horren barrenean jabetza hartzen ez badu, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskubide guztiak galduko ditu Otsagabiko Udaleko lan-kontratudun finko bilakatzeko, eta aurreko oinarrian esandakoari jarraituko zaio.

9.–Errekurtsioak.

Deialdiaren, haren oinarrien edo hura aplikatzeko egintzen kontra, jartzen ahal dira uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aipatzen diren errekurtsioak (6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa).

10.–Aplikatu beharreko araudia:

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, onesten duena Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatu-tuaren testu bategina.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, tratatzen duena Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, tratatzen duena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Otsagabian, 2020ko otsailaren 12an.–Alkate udalburua. M.^a Carmen Recalde Berrade.

I. ERANSKINA

[Eskabide orria](#) (PDFa).

II. ERANSKINA

1.–Merezimenduen baremoa (lehiaketaldia), 40 puntu.

Esperientzia zaintzaile laguntzaile/gerokultore gisa, egoitza geriatrikoetan edo antzeko laguntza zentroetan, izan titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak, behar bezalako kontratu harremanarekin.

Mendekotasuna duten pertsonak laguntzeko egoitzetan lan egindako urte oso bakoitzeko: 0,2 puntu hilabete bakoitzeko.

Titulartasun publikoko laguntza zentroetan izandako esperientzia frogatuko da honako hauek aurkeztuz: giza baliabideen arloan eskumenak esleiturik dituen erakundearen unitateko buruak egindako ziurtagiria, eta, horrekin batera, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren lan bizitzari buruzko txostena, agertzen dituen frogatu nahi dituen aldi horiek.

Enpresa pribatuetan lan egindako denbora frogatuko da honako hauek aurkeztuz:

Enpresaren ziurtagiria, lan-kontratuaren kopia frogatu nahi duen aldi bakoitzeko, eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren lan bizitzari buruzko txostena, agertzen dituen frogatu nahi dituen aldi horiek.

Ez dira baloratuko aurreko atalean eskatzen denarekin bat frogatzen ez diren merezimenduak.

2.–Gai-zerrenda:

1. Zahartzea eta eritasunak.
2. Azala eta egoiliarren higiena eta garbiketa.
3. Mugitzeko, ibiltzen laguntzeko eta lekuz aldatzeko teknikak.
4. Egoiliarren elikadura.
5. Hil ondoko zainketak.

L2002873

IRUÑA

Deialdia, izangai-zerrenda bat hautaprobaren bitartez osatzeko, Joaquin Maya Musika Eskola Berezikoko irakasle lanpostuan ikastaro monografikoaren espezialitatean aldi baterako kontratu bidez aritzeko, gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira

Iruñeko Udalak, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak 2020ko urtarillaren 22an emandako ebazpenaren bidez, honako deialdi hau onetsi du:

Deialdia, izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, musika eskola bereziko irakasle lanpostuan ikastaro monografikoen espezialitatean aldi baterako kontratu bidez aritzeko, Iruñeko Udaleko Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Deialdiaren oinarriak eskuragarri daude www.pamplona.es webgunean eta Herritarrendako Arreta Bulegoan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an.—Javier Morrás Iturmendi, Giza Baliabideetako zuzendaria.

L2002979

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

BARAÑAIN

Aldaketa, Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantza. Behin betiko onespina

Barañaingo Udalak, 2019ko azaroaren 28an egin osoko bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batez onestea Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantzako aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan xedatuari jarraikiz, hasierako onespinen erabakia 2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 27an, baita Barañaingo Udalaren ediktuen taulan ere.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu Foru Legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, ordenantza egindako aldaketa behin betiko onetsitaz jo da, eta haren testua argitaratzen da, behar diren ondorioak izan ditzen, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Barañainen, 2020ko otsailaren 12an.—Alkate udalburua, María Le-cumberri Bonilla.

MERKATARITZA EZ EGONKORRA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Aldatutako artikulua. Idazketa berria

4 b 2) artikulua.—Urte osoan, astearteatik 00:00etatik 15:00etara, azoka txikiaren kokalekua eta behar bezala seinaleztatutako perimetro-eremua zamalanetarako eremutat hartuko dira, eta debekatuta egonen da gelditzea eta aparkatzea azokatik eta haren funtzionamendutik kanpoko pertsona guztientzat.

7. artikulua.—Urtero, baimen guztiek abenduaren 31n galduko dute indarra eta, beraz, urtero berritu behar dira. Saltoki finkoak berritu ahal izateko, azaroaren 1etik 15a bitartean eskatu behar da, eta ordenantza honetan galdetzen diren agiri guztiak ekarri. Saltokiak libre gelditzen ahaliko dira bai horiek adjudikatu ez direlako baldintzak ez betetzeagatik bai adjudikaziodunek eskaerarik aurkeztu ez dutelako; halakoetan, gainerako adjudikaziodunei eskainiko zaizkie eta zozketaz adjudikatuko dira, interesa batek baino gehiagok baldin badu. Azkenik, saltoki gehiago libre gelditzen badira, beren eskaera ezarritako epearen barnean aurkeztu duten eskaetzaileen artean adjudikatuko dira, ordenantza honetan lehentasunari buruz ezarritako irizpideei jarraikiz. Ezinezko bada, dauden jarduerak eta horiek antzekoak direlako, zozketa egingen da guztien artean, Herriko Etxean. Itxaron zerrendan eskatzaileak ez badago, eskaerak aurkezteko beste epe bat jarriko da eta adjudikatuko zaie dokumentazioa osorik aurkeztu duten interesdunei, ordenantza honetan zehaztutako hautapen irizpideei jarraikiz. Aurreko kasuan bezala, esleitutako saltokiak daudenen antzekoak baldin badira, aipatu den zozketa sistema aplikatuko da.

Aurreko prozeduren ondoren, urte hasieran lanpostu libreak esleitu gabe gelditzen badira, urte bakoitzeko urtarrilaren 15etik 30era bitarteko beste epe bat ezarriko da, Ordenantza honetan eskatutako dokumentazio guztia Erregistro bidez aurkeztuz, urte horretarako lizentzia eman zaien adjudikaziodun guztiek bigarren salmenta lizentzia bat lortu ahal dezaten, ordenantza honetan ezarritako lehentasun irizpideen arabera. Interesdun bat baino gehiago badago, guztien arteko zozketa bidez adjudikatuko dira, udaletxeko bulegoetan.

Urtearen joanean saltokirik libre gelditzen bada, dela adjudikaziodunak uko egin diolako, dela beste arrazoiren batengatik, gainerako adjudikaziodunei eskainiko zaizkie, hauek beren tokia aldatu nahi ote duten. Interesa batek baino gehiagok baldin badu zozketaz adjudikatuko dira.

Adjudikatutako saltokiak adjudikaziodunek okupatu beharko dituzte, eta horiek ezin dira laga, ezta eman ere. Hala ere, Alkateak trukeak baimentzen ahaliko ditu bi saltokien artean, urtean behin baizik ez; halakoetan,

bi interesdunek sinatutako eskaera aurkeztu beharko da. Ezin izanen da trukeak eskatu urte naturalaren azken hiruhilekoan.

Saltzen diren produktuak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan agertutakoak izanen dira, eta Udalarik aurkeztutako eskabidean ere.

11.1. artikulua.—Oro har, pertsona, enpresa edo elkarte bakoitzak salmenta baimen bakarra eskuratu dezake urtero. Hala ere, ordenantza honen 7. artikuluan adierazitakoari jarraituz, Udal Agintaritzak beste saltoki bat betetzeko bigarren lizentzia bat adjudikatu edo baimendu diezake urte horretarako lizentzia emana duten pertsona, enpresa edo elkarte guztiei, baldin eta hala eskatzen badute Udal Erregistroaren bidez urte bakoitzeko urtarrilaren 15etik 30era bitartean. Horretarako, ordenantza honetako 8. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte eta ezin dira 4.1 d) artikuluan aipatutako pertsona, enpresa edo elkarteak izan, horiek saltzeko baimen bakarra eduki baitezakete urteko.

L2002209

BUÑUEL

10/2019 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespina

2019ko abenduaren 16an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi da Udal honen 2019ko aurrekontuan 10. aldaketa egiteko espedienteak.

Hasierako onespinen iragarkia 2020ko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, urtarrilaren 17an, eta jendaurrean egoteko epea iraganenez herritarrek edo interesdunek erreklamazioak aurkeztu gabe, aldaketa horiek behin betiko onetsirik gelditu dira. Hona hemen:

Aparteko kreditua

—Gastuaren gehikuntza:

1 1533 6000000 aurrekontu-aplikazioa.—“Lurrak udalaren ondarera itzultzea”, 100.100,00 eurokoa.

—Finantzaketa:

1 8700000 aurrekontu-aplikazioa.—“Diruzaintzako gerakina”, 100.100,00 euro.

Buñuelen, 2020ko otsailaren 12an.—Alkatea, María Teresa Espinosa Sáenz.

L2002211

CAPARROSO

2020rako lan egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa

Alkatezaren otsailaren 11ko 46/2020 Ebazpenaren bidez onetsi zen Caparrosoko Udalaren zerbitzuko langileen 2020ko lan egutegia. Hona hemen haren xedapen zatia:

“Lehenbizikoa.—Onestea Caparrosoko Udalaren zerbitzuko langileen 2020ko lan egutegia, eta, hartara, jaiegun deklaratzeko egun hauek:

—Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

—Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

—Martxoaren 19a: San Jose.

—Apirilaren 9a: Ostegun Santua.

—Apirilaren 10a: Ostiral Santua.

—Apirilaren 13a: Pazko astelehena.

—Apirilaren 25a: San Markos, herriko festa eguna.

—Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

—Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundeak.

—Irailaren 2, 3, 4, 5, 7 eta 8a: Caparrosoko festak.

—Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

—Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

—Abenduaren 7a: Konstituzio egunaren biharamuna.

—Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbia.

—Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Bigarrena.—Orobat, baliogabeak izanen dira, 2020. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta honako ebazpen honen lehenbiziko xedapenean adierazitako jaiegunak.

Hirugarrena.—Caparrosoko Udaleko administrazioako lanorduen urteko kopurua 1.592 ordukoa da, abenduaren 26ko 26/2012 Foru Legearen arabera, eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, oro har, 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da.

Laugarrena.—Bulegoetako eta lantaldeko langileek egutegi eta ordu-tegi bereziak izanen dituzte; 2020an aplikatuko zaizkie ebazpen honen lehenbiziko xedapenean oro har ezarritako jaiegunak, bai eta hirugarren xedapenean ezarritako lanaldia ere. Honako berezitasun hauek ezartzen dira zerbitzu bakoitzerako:

A) Bulegoetako langileria:
Udal bulegoak itxiak egonen dira baliogabe deklaraturako egunetan.
Caparrosoko Udalean jendea hartzeko eta bertako Erregistro Orokorra irekita egoteko ordutegia 10:00-13:30 da, astelehenetik ostiralera.

B) Lantaldeko langileak:
Abuztuaren 24tik 31ra bitarte (biak barne) eta irailaren 9tik 14ra bitarte (biak barne), lantaldeko langileek ezin dituzte oporrak hartu eta lan egin beharko dute.

Bosgarrena.–Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baita, ediktuen bidez, Caparrosoko Udalaren iragarki-taulan ere.

Seigarrena.–Ebazpen hau eta lan egutegia Udaleko langile guztiei jakinaraztea eta Udalbatzari ebazpenaren berri ematea eginen den hurrengo osoko bilkura arruntean.”

Caparrosen, 2020ko otsailaren 12an.–Alkatea, Carlos Alcuaz Monente.

L2002171

OLTZA ZENDEA**Akats zuzenketa, 2020ko dirulaguntzetarako deialdi publikoaren laburpenean, jarduerak egiteko kultura, kirol, hezkuntza, berdintasun, euskara eta gazteria arloetan**

Akatsa atzeman da laugarren puntuan (zenbatekoa), 2020ko dirulaguntzetarako deialdi publikoan, jarduerak egiteko kultura, kirol, hezkuntza, berdintasun, euskara eta gazteria arloetan (2020ko 29. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 12an, argitaratu zen, DDBN 493776 identifikazioarekin). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da.

Honela dioen tokian:

“Laugarrena.–Zenbatekoa:
Helburu horietarako, 11.000,00 euro bideratuko dira guztira, honela banaturik:

–Kultur jardueretarako dirulaguntzak: 8.000,00 euro.

–Kirol jardueretarako dirulaguntzak: 3.000,00 euro.”

Honelaxe behar du:

“Laugarrena.–Zenbatekoa:

Helburu horietarako, 8.500,00 euro bideratuko dira guztira, honela banaturik:

–Kultur jardueretarako dirulaguntzak: 6.500,00 euro.

–Kirol jardueretarako dirulaguntzak: 2.000,00 euro.”

Oltza Zendea, 2020ko otsailaren 13an.–Alkatea, Moisés Garjón Villanueva.

L2002277

CORELLA**2020ko plantilla organikoa. Behin betiko onespena**

Corellako Udalak, 2019ko abenduaren 12an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen 2020. urterako plantilla organikoa.

Jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu. Hortaz, behin betiko onetsirik gelditu da 2020ko plantilla organikoa.

Aplikatu beharreko araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua.

Corellan, 2020ko otsailaren 12an.–Alkatea, Gorka García Izal.

UDALA**2020ko plantilla organikoa****Funtzionarioak 2019/11/11n**

LANPOSTUAREN IZENA	FUNTZIONARIO KOPURUA	MAILA	SARBIDEA	MAILA 1	LANPOSTUA	BERARI-AZKO O. UDALTZ.	LANAL-DIAREN LUZAPENA	BURUTZA	BATERAEZINT.	TXANDAK. LAN. KONPENTSAZIOA	ADMINISTRAZIO EGOERA
Idazkaria	1	A	OL		38,42 (1)				35 (1)		Hutsik
Kontu-hartzailea	1	A (1)	OL		28,27				35 (1)		Jardunean
Administrari-ofiziala	1	C	C	12	27,56						Hutsik
Administrari-ofiziala	1	C	OL	12	27,56						Jardunean
Administrari-ofiziala	2	C	OLM	12	27,56						Jardunean
Kultura koordinatzailea	1	B	OL		50,27		10				Jardunean
Kirol koordinatzailea	1	B	OL		7,27						Ezedentzian
Gizarte-langilea	1	B	OL		35,27			10			Jardunean
Gizarte-hezitzailea	1	B	OLM		35,27						Jardunean
Udaltzaingoko kaboa	1	C	OLM		3,96	45		20		6**	Hutsik
Udal agenteak	1	C	O		3,96	45				6**	Zerbitzu bereziak
Udal agenteak	8	C	O.		3,96	45				6**	Jardunean
Udal agenteak	1	C	O.		3,96	45				6**	Hutsik (2017)
Udal agenteak	3	C	O.		3,96	45				6**	Hutsik (2019)
Landazaintzako arduraduna	1	D	OLM	12	52,69						Hutsik
Udal lantaldearen arduraduna	1	D	OL	12	25		10	20			Hutsik
Obretako ofiziala	1	D	OL	12	7,79		10				Jardunean
Lantaldeko makinetako ofiziala	1	D	OLM	12	26,99						Jardunean
Mantentze-lanetako ofiziala	1	D	OLM	12	5,69		10				Hutsik

(1) 4/2011 Foru Legearen aplikazioa.

(2) Udaltzaingoko agenteen osagarrien birbanaketa, Osoko Bilkuraren 2019/05/21eko erabakiaren arabera.

Lan-kontratudun finkoak

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	MAILA	SARBIDEA	MAILA 1	LANPOSTUA 2	BATERAEZINTASUNA	ARRISKU BEREZIA	LANALDIAREN LUZAPENA	ADMINISTRAZIO EGOERA
Arkitektoa	1	A	O		15,42	35			Hutsik
Gizarte-langilea	1	B	OL		35,27				Hutsik
Administrari laguntzailea	4	D	OL	12	31,69				Hutsik
Familia-langilea	2	D	LL	12	10,69				Jardunean
Familia-langilea	3	D	OL	12	10,69				Hutsik
Zerbitzu anitzetako langilea, elektrikaria	1	D	OL	12	35			10	Hutsik
Zerbitzu anitz., lorezaintza	1	D	OL	12	28,69			10	Hutsik
Eskolazaina	1	D	LLLEGLB *	12	10,69				Jardunean/LEO
Zerbitzu anitzetako langilea, ehorzlea	1	E	OL	15	40,91		10 (p)	10	Hutsik

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	MAILA	SARBIDEA	MAILA 1	LANPOSTUA 2	BATERAEZINTASUNA	ARRISKU BEREZIA	LANALDIAREN LUZAPENA	ADMINISTRATIO EGOERA
Eskolazaina	1	E	OL	15	7,91				Jardunean
Zerbitzu anitzetako enplegatua, batez ere ikastetxeko eskolazaina	1	E	O	15	7,91				Hutsik/LEO (%74)

(*) LLEGLB: lekualdatze lehiaketa, beren lanpostuari egokitu gabeko langileak birkokatze.

Behin-behineko langileak

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	SARBIDEA	MAILA 1	MAILA	LANPOSTUA 2	BERARIAZKO O. UDALTZ.	BURUTZAREN SOSTENGUA	TXANDAKOA	BURUTZA	ADMINISTRATIO EGOERA
Udaltzain burua	1	Izend. ask.	C		49,96	45			20	Jardunean

Praktiketan dauden funtzionarioak

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	SARBIDEA	MAILA 1	MAILA	LANPOSTUA 2	BERARIAZKO O. UDALTZ.	BURUTZAREN SOSTENGUA	TXANDAKOA	BURUTZA	ADMINISTRATIO EGOERA
Udaltzain-agentea	1	O	C							Praktikak 23/2018 Foru Legearen III. xedapen gehigarria

Langileen zerrenda

Funtzionarioak

LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	GRADUA	ANTZINATA-SUNA	MAILA	LANPOSTUA	LANALDIAREN LUZAPENA	BERARIAZKO O. UDALTZ.	BURUTZA	BATERAEZ.	TXANDAK. LAN. KONPENTSAZIOA	KARGUA
Lopez Mendoza Milagrosa (Bitarteko gisa)	A	5	5	-	38,42				35		Idazkaria
Ugarte Martinez Rosana	A	4	4		28,27				35		Kontu-hartzailea
Lopez Mendoza Milagrosa (Bitarteko gisa, idazkaria)	C	-	-	12	27,56						Administ.-ofiziala
M.ª Jose Armendariz Poyales	C	5	5	12	27,56						Administ.-ofiziala
Milagrosa Perez Barquin	C	4	5	12	27,56						Administ.-ofiziala
Antonio Martínez Jiménez	B	5	6		50,27	10					Kultura koordin.
M.ª Jesus Arellano Ayala	B	4	5		35,27			10			Gizarte-lang.
Purificacion Zabalza Lopez	B	4	5		35,27						Gizarte-hezitzailea
Mateo Jimenez Jose Manuel	C	4	3		3,96		45			6	Udaltzaina
Morales Artigas J. Tomas (Zerbitzu bereziak, udaltzain burua)	C	5	5		49,96		45	20			Udaltzaina
Arellano Peinado Fco. Javier	C	5	5		3,96		45			6	Udaltzaina
Cebollada Kremer Jose I.	C	5	5		3,96		45			6	Udaltzaina
Igea Lopez Joaquin	C	5	5		3,96		45			6	Udaltzaina
Orta Quinto Esther	C	4	3		3,96		45			6	Udaltzaina
Zapatero Ochoa Jesus Ivan	C	3	3		3,96		45			6	Udaltzaina
Zapatero Ochoa Roberto	C	3	2		3,96		45			6	Udaltzaina
Navarro Izal Carlos	C	2	2		3,96		45			6	Udaltzaina
Javier Sesma Arellano (Bitarteko gisa, arduraduna)	D	4	5	12	25	10		20			Lantaldearen arduraduna
Javier Sesma Arellano (Bitarteko gisa, arduraduna)	D	4	5	12	26,99						Lantaldeko makinetako ofiziala
Jesus Ayala Mateo	D	4	5	12	7,79	10					Obretako ofiziala

Eszedentzian dauden funtzionarioak, lanpostu erreseberarik gabe

IZENA	MAILA	LANPOSTUA
Garbayo Lopez, Angel Ignacio	C	Udaltzaina
Catalan Lopez, Fco. Javier	C	Udaltzaina
Rada Perez, Victorino	C	Udaltzaina
Yanguas Barquin, Armando	C	Udaltzaina
Sesma Cruz, Eduardo	C	Udaltzaina

Eszedentzian dauden funtzionarioak, lanpostu erreseberarekin

IZENA	MAILA	LANPOSTUA
Daniel Martinez Aguado	B	Kirol koordinatzailea

Lan-kontratudun finkoak

LANPOSTUAREN IZENA	ANTZINATASUNA	MAILA 1	LANPOSTUA 2	PRESTASUNA	KARGUA
Gil Garcia, Milagrosa	1993/08/16	12	10,69		Familia-langilea
Gonzalez González, Luisa	1992/07/22	12	10,69		Familia-langilea/LEO

LANPOSTUAREN IZENA	ANTZINATASUNA	MAILA 1	LANPOSTUA 2	PRESTASUNA	KARGUA
Garcia Sanz, Maria Dolores	1992/07/02	12	10,69		Ikastetxe publikoko eskolazaina/LEO
Sesma Barcelona, Antonio	2006/11/02	15	7,91		Ikastetxe publikoko eskolazaina

Behin-behineko langileak

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	SARBIDEA	MAILA 1	MAILA	LANPOSTUA 2	BERARIAZKO O. UDALTZ.	LANALDIAREN LUZAPENA	TXANDAKOA	BURUTZA	ADMINISTRAZIO EGOERA
Jose Tomás Morales Artigas	1	Izend. ask.	C		49,96	45			20	Jarduean

Beste administrazioetako langileak, zerbitzu eginkizunetan

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	MAILA 1	MAILA	LANPOSTUA 2	BERARIAZKO O. UDALTZ.	LANALDIAREN LUZAPENA	TXANDAKOA	BURUTZA	ADMINISTRAZIO EGOERA
Antonio Perez Gonzalo	1	C		3,96	45		6	20	Zerbitzu eginkizunak (Bitarteko kaboa)
Jesus Zaracain Martinez	1	C		3,96	45		6		Zerbitzu eginkizunak (Udal agentea)
Jesus Lucea Peralta	1	C		3,96	45		6		Zerbitzu eginkizunak (Udal agentea)

Lan-kontratudunak

LANPOSTUAREN IZENA	ANTZINATASUNA	MAILA 1	LANPOSTUA 2	BATERAEZINTASUNA	LANALDIAREN LUZAPENA	BURUTZA	ARRISKU BEREZIA	KARGUA
Bernaola Olivares Catalina	2006/07/03		15,42	35				Arkitektoa
Aguirre Bueno Aitana	2003/03/21		35,27					Gizarte-langilea
Trincado Fernandez Adrian	2018/08/13		7,27					Kirol koordinatzailea
Riccobene Liroz Yolanda	2001/06/04	12	31,69					Administr. laguntzailea
Garcia Sanz Maria Jose	2004/07/28	12	31,69					Administr. laguntzailea
Atienza Fernandez Raquel	2004/12/16	12	31,69					Administr. laguntzailea
Mellado Lopez Erika	2008/03/10	12	31,69					Administr. laguntzailea
Arellano Delgado M.ª Carmen	2018/11/05	12						Administr. laguntzailea
Carrillo Sesma Monica	2000/04/12	12	10,69					Familia-langilea
Gonzalez Alvarez Maria Jose	2003/06/23	12	10,69					Familia-lang.
Vera Pérez, Eva Maria	2016/10/03	12	10,69					Familia-langilea/ Luisa Gonzalez Alvarez ordezkatzuz
Corpas Sanz, Maria Dolores	2006/07/03	12	10,69					Familia lang./Perez Azcona, Enrique ordezkatzuz (ABE)
	2016/06/06	12	52,69					Landazaintzako arduraduna
Vergara Losua, Camino	2014/04/09	15	7,91					Zerb. anitzetako enpleg., batez ere ikast. eskolazaina (LEO)
Rodriguez Diaz, Santiago	2010/04/12	12	35		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Hostau Devis, Alejandro	2002/01/14	12	28,69		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Atienza Martinez, Fco. Javier	2002/09/21	15	23,31		10			Zerbitzu anitzetako enplegatua-LKEFM*
Ayala Martinez, Jose Antonio	2012/12/31	15	40,91		10		10	Zerbitzu anitzetako enpleg.
Ruiz Ayuso, Miguel	2007/07/23	15	23,91		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Monreal Navarro, Jose R.	2007/07/23	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enplegatua-LKEFM*
Martinez Murga, Jose	2007/07/23	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enplegatua-LKEFM*
García Cantón, Esther	2014/04/22	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enplegatua-LKEFM*
Fernandez Muñoz, Domingo M.	2018/01/02	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Izal Maximo, Antonio	2018/01/02	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Oloqui Puente, Pedro Jesús	2018/01/15	12	17,79		10			Obretako ofiziala
Rodriguez Verdugo, Victoriano	2018/04/25	15	11,41		10			Peoia
Lazaro Lainez, Jose Javier	2018/06/04	15	11,41		10			Zerbitzu anitzetako enpleg.
Saez Muñoz, Francisco Javier	2018/12/04	12	7,79		10			Igeltsero-ofiziala
Catalan Rico, Joaquin	2016/12/27	15	64		10			Kultura-etxeko atezaina
Alfaro Izquierdo, Faustino J.	2019/09/23	15	11,41		10			Zerbitzu anitzak
Jimenez Anguiano, Carlos	2019/10/21	15						Zerbitzu anitzetako enpleg.
Perez Alvaro, Bermejo	2019/02/18	15						Peoia
Valles Galarreta, Jose Javier	2019/01/14	15	11,41		10			Zerbitzu anitzak
Sesma Garcia, Lourdes Rita	2008/01/17							Postaria-LKEFM*
Ibircu Gil, M.ª Isabel	2019/03/27	12	3					Enplegu sozial babestuko monitorea.
Rubio Pisa, Carmen	2019/04/01							Enplegu sozial babestuko peoia
Beamonte Galarreta, Elena	2019/04/01							Enplegu sozial babestuko peoia
Abdi Zineb	2019/09/10							Enplegu sozial babestuko peoia
Diaz Ladrero, Elsa	2019/05/22							Berdintasuneko agentea
De La Torre Peña, Inmaculada	2019/08/29		35,27		10			Kultura koordinatzailea/ Antonio Martinez ordezkatzuz
Fernandez Garcia, Ines	2019/09/02							Eskola-sustatzailea

* LKEFM. Lan-kontratudun ez finko mugagabea.

Eszedentzian dauden lan-kontratudunak, lanpostu erreserbarik gabe

IZENA	MAILA	LANPOSTUA
Ana Rosa Ciordia Diez	D	Administrari laguntzailea

Lan eskaintza

- 1 udal arkitekto.
- 1 gizarte-langile.
- 3 familia langile.
- 4 administrari laguntzaile.
- 1 zerbitzu anitzetako enplegatu, lorezaintza.

SAN JOSE ZAHAR ETXEA

2020KO PLANTILLA ORGANIKOA

LANPOSTUAREN IZENA	KOPURUA	SARBIDEA	EGOERA
Sukaldaria	2	OL	Hutsik
Gerokultorea	1	OL	Jardunean
Gerokultoreak	2	OL	Hutsik G
Garbitzaileak	14	OL	Hutsik L
Garbitzaileak (batez ere ikuztegia eta lisatzea) - LEO	1	OL	Hutsik LLP
Erizaina	2	OL	Hutsik E
Zuzendaria	1	OL	Hutsik D

Corellako San José zahar etxearen zerbitzuko langileen zerrenda

2019/11/06an kontraturik zeuden langileekin osaturiko plantilla

Langile finkoak

LANPOSTUAREN IZENA	ANTZINATASUNA	LANPOSTUA	EGOERA
M.ª Carmen Virto Ruiz	1994/11/30	Gerokultorea	Jardunean

Lan-kontratudunak

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTUA	ANTZINATASUNA	EGOERA
Ainhoa Gil Perez	Zuzendaria	2004/03/29	Hutsik DE *
Noemi Jimenez Marin	Erizaina	2005/03/01	Hutsik 1. E (LM) *
Eva Echau Hernández	Erizaina	2007/02/26	Hutsik 2. E - Eszedentzia
Concepcion Mateo Fernández	Sukaldaria	1996/10/23	Hutsik 1. C* - Erretiro partziala
Purificacion Delgado Garcia	Sukaldaria	2004/03/16	Hutsik 2. C* - Erretiro partziala
Sobejano Liroz Elena	Sukaldaria	2001/07/27	Hutsik 1. C *
Paulina Hernandez Ventura	Sukaldaria	2012/10/01	Hutsik 2. C
M.ª Mercedes Saavedra Gonzalez	Gerokultorea	2007/06/21	Hutsik 1. G
Lazaro Lozano Mercedes	Garbitzailea	2002/04/01	Hutsik 1. L
Ofelia Gil Casamachin	Garbitzailea	2003/07/01	Hutsik 2. L
Minerva Polanco Vicioso	Garbitzailea	2004/10/18	Hutsik 3. L
Milagrosa Lazaro Serrano	Garbitzailea	2016/12/13	Hutsik 4. L
Sol Milena Saldarriaga Mejia	Garbitzailea	2005/09/17	Hutsik 5. L
Eudalina Vicioso Domínguez	Garbitzailea	2006/05/17	Hutsik 6. L
Marta Astrain Lopez	Garbitzailea	2006/12/27	Hutsik 7. L
M.ª Jesus Salvador Delgado	Garbitzailea	2017/03/10	Hutsik 8. L
Mercedes Garcia Leon	Garbitzailea	2007/08/17	Hutsik 9. L
Aroa Lasheras Garcia	Garbitzailea	2009/05/18	Hutsik 10. L
Claudia Ocampo Gomez	Garbitzailea	2009/07/28	Hutsik 11. L
M.ª Angeles Garcia Sabalza	Garbitzailea	2009/11/12	Hutsik 12. L
Gloria Ramos Ochoa	Garbitzailea	2014/09/21	Hutsik 13. L
Esperanza Teruel Alvarez	Garbitzailea	2018/11/15	Hutsik 14. L
Raquel Gil Perez	Garbitzailea (batez ere ikuztegia eta lisatzea)	2008/01/15	Hutsik 1. LLP (LEO) *
Lidia Perez Moreno	Erizaina	2014/05/10	Eva Echauren eszedentzia ordezkatzuz
Clara Lopez Perez De Urabayen	Erizaina	2012/01/01	Noemi ordezkatzuz eta oporrak
Cristina Delgado Garcia	1. mailako administrari-ofiziala	2019/08/05	Bitarteko kontratua
Ana Carmen Arellano Gil	Garbitzailea	2014/03/14	Purificación Delgadoen errelebo kontratua
Cristina Saavedra Gonzalez	Garbitzailea	2019/10/01	Oporretakoak ordezkatzuz
M.ª Victoria Guillorme Bea	Garbitzailea	2019/02/15	Solmilena Saldarriaga ordezkatzuz (ABE)
Laura Sesma Sanz	Garbitzailea	2018/04/19	Marta Astrain ordezkatzuz (ABE)
Nuria Sencianes Garcia	Garbitzailea	2018/12/19	Mercedes Lazaro Lozano ordezkatzuz (ABE)
Luz Vibiana Giraldo Guzman	Garbitzailea	2019/07/09	Rocio Teruel Alvarez ordezkatzuz (ABE)

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTUA	ANTZINATASUNA	EGOERA
Joshelyn Padilla Llamba	Garbitzailea	2019/10/24	Maria Angeles Garcia ordezkatzuz (ABE)
Leslie Yelitza Alava Rezavala	Garbitzailea	2019/10/30	Cristina Saavedra ordezkatzuz (ABE)

LABURDURAK:

- * DE (zuzendaritza/erizaintza).
- * E (erizaintza).
- * C (sukaldaria).
- * G (gerokultorea).
- * L (garbitzailea).
- * LLP (garbitzailea, arropa garbitzailea, lisatzailea).

Lan publikoaren eskaintza

- 2 sukaldari.
- 2 gerokultore.
- 14 garbitzaile.
- 1 garbitzaile, batez ere ikuztegrako eta lisatzeko, LEO.
- 2 erizain.
- 1 zuzendari.

L2002172

ETXARRI**2019ko aurrekontua. Hasierako onespina**

Etxarriko Kontzejuak (Larraun), 2019ko ekainaren 5ean egin bilkuran, onetsi zuen 2019ko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.

Espedientea jendaurrean egonen da hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, bizilagunek edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkezten dituzten. Epea bukatutakoan inork erreklamaziorik aurkeztu ez badu, behin betiko onetsitatzeko da.

Etxarrin, 2020ko otsailaren 13an.—Kontzejuko burua, Imanol Jaka.

L2002240

IGANTZI**2019ko plantilla organikoa. Behin betiko onespina**

Igantzi Udalak, 2019ko urtarrilaren 11n egin osoko bilkuran 2019ko ekitaldirako plantilla organikoaren behin-behineko onespina eman zuen. Erabakia 2019ko 77. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 24an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan eta harekin bat etorri diren xedatuari jarraikiz eta jendaurreko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, 2019ko abenduaren 16ko osoko bilkuran 2019ko plantilla organikoaren behin betiko onespina eman zen.

Igantzin, 2020ko otsailaren 21ean.—Alkatea, Juankar Unanua Navarro.

2019KO PLANTILLA ORGANIKOA*Funtzionarioak*

1.—Idazkaria, Arantzako Udalarekin batera.

Maila: A. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa. Osagarria: %3,72. Egoera: Hutsik. Euskara maila: 4 (Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2012ko apirilaren 17an onetsitako txostenaren arabera, 2012ko irailaren 4an aldatu baitzen, eta Udalak 2012ko urriaren 30ean egin bilkuran berretsik).

2.—Administrari-ofiziala.

Maila: C. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa. Mailako osagarria: %20,52. Antzintasuna: 2 bosturteko. Gradua: 2. Familia laguntza: Bai. Egoera: Jardunean. Euskara maila: 3 (Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2012ko apirilaren 17an onetsitako txostenaren arabera, 2012ko irailaren 4an aldatu baitzen, eta Udalak 2012ko urriaren 30ean egin bilkuran berretsik).

3.—Zerbitzu anitzetako arduraduna.

Maila: C. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa. Mailako osagarria: %20,35 + 250,00 euro. Antzintasuna: 2 bosturteko. Gradua: 1. Familia laguntza: Bai. Egoera: Jardunean. Euskara maila: 3 (Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2012ko apirilaren 17an onetsitako txostenaren arabera, 2012ko irailaren 4an aldatu baitzen, eta Udalak 2012ko urriaren 30ean egin bilkuran berretsik).

*Lanpostu zerrenda**Funtzionarioen izenen zerrenda.*

1.—Jaione Sein Petrikorena.

Maila: C. Gradua: 2. Zerbitzu onartuen data: 1997ko azaroak 10. Lanpostua: Administrari-ofiziala. Administrazio egoera: Jardunean.

2.—Jokin Zabaleta Zabaleta.

Maila: C. Gradua: 1. Zerbitzu onartuen data: 2005eko irailak 5. Lanpostua: Zerbitzu anitzetako arduraduna. Administrazio-egoera: Jardunean.

Administrazio araubideko bitarteko langileen izen zerrenda.

1.—Eguzkiñe Aiesa Andres.

Maila: A. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa. Osagarria: %3,72. Euskara maila: 4 (Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2012ko apirilaren 17an onetsitako txostenaren arabera, 2012ko irailaren 4an aldatu baitzen, eta Udalak 2012ko urriaren 30ean egin bilkuran berretsik). Lanpostua: Idazkari kontu-hartzailea. Administrazio-egoera: Jardunean.

L2002907

URRAULGOITI**Udal Plana jendaurrean**

Urraulgoitiko Udalak, 2020ko otsailaren 7 egin osoko bilkuran, onetsi zuen 20 eguneko epea irekitzea, babes publikoko araubideren bati lotzen zaizkion etxebizitzak tramitazio bidean den Udal Planean sar daitezke nahi duten interesdunek Udalean asmo hori azal dezaten, eta, hala, delako planean sartu.

Urraulgoitin, 2020ko otsailaren 14an.—Alkatea, Martín Iriarte Vizcay.

L2002433

EGUESIBAR**Aldaketa enpresa mintegiaren erabilerak eta funtzionamendua arautzen dituen erregelamendua. Behin betiko onespina**

Eguesibarko Udalak, 2019ko abenduaren 10ean egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea enpresa mintegiaren erabilerak eta funtzionamendua arautzen dituen erregelamendua aldatzea.

Aldaketa horren hasierako onespinari eta arauzko jendaurreko epeari buruzko iragarkia eman zen argitara 2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27an, eta Udalaren iragarki-taulan. Jendaurrean egon bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, behin betiko onetsirik gelditu da, ondotik ematen den testuaren arabera.

Argitara ematen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluetan eta aplikatzekoa den gainerako legerian ezarritakoa betetzeko.

Sarrigurenen (Eguesibar), 2020ko otsailaren 12an.—Alkatea, Amaia Larraya Marco.

ERREGELAMENDUA, EGUESIBARKO UDALAREN ENPRESA MINTEGIAREN ERABILERAK ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA

Enpresa mintegia Eguesibarko Udalak sustatutako ekimen bat da, enpresen eta enpresa ekimenen sorrera bultzatu eta errazteko, bai eta enpresak erakartzeko ere, sektore estrategikoetan aritzen badira, ibarrean berritzailea eta bereizlea den ezaugarri bat badute edo jardueran hasteko eremu txiki baten beharrean badira.

XEDAPEN OROKORRAK

1.–Mintegiaren helburua.

Eguesibarko enpresa mintegia espazio fisiko bat da, udal titulartasun publikokoa, enplegua eta autoenplegua sustatzea xede duena eta bulego bat eta eremu komunak aldi baterako erabiltzea eskaintzen diena ekintzaileei eta mikroenpresei, laguntza behar badute abian jartzeko edo hazteko.

Mintegiaren helburua honako hau da:

- Enpresa edo enpresa-proiektu berriak sor daitezen erraztea.
- Enpresa edo proiektu sortu berriak sendotzea.
- Sustatzea sor daitezen mintegian dauden proiektuen arteko sinergiak.
- Lehentasuna ematea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin bat datozen ekimenei; zehazki, energia berriztagarriekin loturikoei eta sorkuntza industria eta industria digitalen ingurukoei.

2.–Onuradunak.

Lehentasunez, Eguesibarren erroldaturiko pertsonendako izanen dira mintegiko bulegoak eta bilera gelak. Pertsona baten baino gehiagoren proiektuak direnean, aski izanen da eskatzailea egotea erroldaturik Eguesibarren.

Nolanahi ere, mintegia erabili ahal izateko, proiektuek 50 puntu lortu beharko dute, II. Eranskinean jasotzen diren irizpideen arabera.

3.–Instalazioak.

Eguesibarko enpresa mintegiaren instalazioak 138,61 m² + 26,45m²-ko azalera eraiki batean banaturik daude, Eguesibarko udaletxe zaharreko lehen solairuan eta beheko solairuan (Eguesko San Martin karrika).

Espazio banaketan hauek sartzen dira:

a) Bulegoak: 7 bulego, zerbitzu enpresen jarduera abiarazteko ego-kituak. Bakoitzaren azalera 17,55 m², 13 m², 14 m², 9,45 m², 10,85 m², eta 12,25 m² da lehen solairuan, eta beheko solairuan, 16 m² (azken hori mugikortasun urriko eskatzaileendako da).

Halaber, mintegian honako eremu hauek daude erabiltzeko moduan, baldin gainerako bulegoak harturik badaude: 8. bulegoa (4.a planoan), 13,85 m²-koa, eta 9. bulegoa (3.a planoan), 12,60 m²-koa.

Bulego guztiak badauzkate jarduera ahalik eta denbora laburrenean abiarazteko behar diren instalazioak. Bertan gauzatu beharreko jardueraren arabera, enpresek beren gain hartu beharko dituzte bulegoaren egokitzapena nahiz horren gastuak.

Udalak onetsi beharko ditu egiten diren aldaketak, aldez aurretik idatziz eskatu eta Udalaren erregistro orokorraren sarrera eginda. Enpresek hitzeman beharko dute lokala hasieran zegoen bezala utziko dutela joatean.

Bulegoek altzariak dauzkate baina ekipamendu informatikorik ez.

b) Ur-hornidura, argindar-hornidura, klimatizazioa eta ADSL Wifi konexioa.

c) 1., 2. eta 3. bulegoek badute, gainera, aire girotua.

d) 28,15 m²-ko bilera edo prestakuntza gela bat beheko solairuan, proiektorearekin eta arbel digitalarekin.

e) 47,90 m²-ko erabilera anitzeko areto bat lehen solairuan.

Gelak erabiltzeko, aurretik erreserba egin beharko da desarrollocal.tokigarapena@egues.es helbide elektronikoaren bidez, eta zenbat pertsona bilduko diren eta bilera noiz hasi eta bukatuko den adierazi beharko da. Erabiltzen ez bada, lehenbailehen ezeztatu beharko da erreserba.

4.–Bulegoak eta luzapenak eskatzea.

Idatziz egin beharko da enpresa mintegian sartzeko eskaera, 1. eranskineko ereduaren arabera, eta Udalaren erregistro orokorraren bidez aurkeztuko da.

Eskabidea toki garapeneko arloan baloratu, eta hark ebartziko du ad-judikazioa, erregistroko sarrera-hurrenkera eta II. eranskineko baremoa kontuan hartuta.

Bulego guztiak hartuta egoteagatik bulegorik lortzen ez duten eskabideak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, eta zerrenda horretakoak eskabide berriekin lehiatuko dira leku bat hutsik gelditzen denean.

Eguesibarko enpresa mintegian egon bitartean, lokala aldatzeko eskatzen ahalko da, edo lokal gehigarriak eskatzen ahalko dira, baldin eta lokal horiek erabilgarri badaude.

Halaber, zilegi izanen da instalazioetako egonaldiaren luzapena eskatzea, ezohiko arrazoiak direla eta, gehienez ere urtebeterako.

Luzapenak erregistro orokorraren bidez eskatuko dira formalki, arrazoiak zehatz-mehatz azalduz. Eguesibarko Udaleko toki garapeneko

arloak eskabidea aztertuko du, baina, edonola ere, lehentasuna emanen die eremua eskatu eta itxarote-zerrendan dauden enpresei, halakorik bada.

Luzapen aldian, alokairuaren benetako kostua aplikatuko da, merkatuaren arabera.

5.–Tasak eta egonaldia.

5.1. Tasak.

Aplikatuko da Eguesibarko Udalaren enpresa mintegiko eremuak erabiltzeko tasak arautzen dituen udal ordenantza.

5.2. Egonaldia.

Mintegiko eremuen erabilera aldi baterakoa izanen da, eta eskatzaile-motaren arabera aldatuko da:

1. Garatzeko negozio ideia bat duten ekintzaileak. Aurreinkubazio moduan erabiltzen ahalko dute mintegia, bideragarritasun-plana taxutu bitartean, edo enpresa edo proiektua abian jartzeko pausoak eman bitartean. Aurreinkubazio aldia urtebetekoa izanen da, gehienez. Enpresa eratzen den unean, inkubazioko baldintzak aplikatuko dira.

Aurreinkubazioan gehienez urtebete iragan ondoren, enpresa eratu ez bada, mintegia utzi egin beharko du, eta inkubaziorako beste eskabide bat egiten ahalko du, baldin eta etorkizunean eratzten bada.

2. Autonomoak eta jada eraturiko mikroenpresak. Mintegia inkubazio moduan erabiltzen ahalko dute, bi urtean gehienez.

Gehieneko egonaldia iragan ondoan, ezohiko arrazoiak direla eta, luzapena eskatzeko aukera egonen da, urtebeterako.

Luzapena gehienez urtebetekoa izanen da, eta eman ahalko da baldin bulegoren bat hutsik badago eta itxarote-zerrendarik ez badago; toki garapena enpleguko arloak txostena eman beharko du aurretik, gainera.

Mintegian gehienez ere 4 urtez egoten ahalko da (aurreinkubazioko 1 + inkubazioko 2 + luzapen bereziko 1).

6.–Segurtasun zerbitzuak: kontrola eta sarbideak

–Giltzak:

Enpresendako eremuaren adjudikazioa duenari bulegoaren bi giltza emanen zaizkio (bat erreserbakoa), eta postontziaren giltza bat.

Badago aukera giltza gehiago eskatzeko. Horretarako, idatziz eskatu beharko zaio Eguesibarko Udalari. Giltza gehigarriek 20 euroko kostua ekarriko dute giltza bakoitzeko, eta ematean ordaindu beharko dira. Enpresa bi pertsonak edo gehiagok osatzen badute, giltza bana emanen zaie kosturik gabe, eta erreserbako giltza bakar bat.

Segurtasun arrazoiak direla eta, Eguesibarko Udalak bulegoetan sartzeko giltzen kopia bat edukiko du, larrialdietan erabiltzeko, edo beharrezkoa den beste edozein egoeratan.

–Segurtasun sistemak eta suteen aurkako sistemak:

Instalazioek segurtasun sistema bat dute, intrusio alarmak eta sentore bolometrikoak dauzkana, banakakoa bulego guztietan eta orokorra eremu komunetan. Sistema hori segurtasun enpresaren bulego nagusiari konektatuta dago, zerbitzua 24 orduetan eta urteko 365 egunetan emanez.

Horrez gain, suteak detektatzeko sistema automatikoa dago.

7.–Administrazio betebeharrak

–Ekonomia-jardueren gaineko zerga:

Mintegian instalatuta dauden enpresek alta hartu beharko dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ), Eguesibarko Udalean.

–Irekitzeko lizentzia:

Edozein jarduera ekonomikotan bezala, enpresa bakoitzak irekitzeko lizentzia eskuratu beharko du. Hala ere, jarduera kaltegabearen aritzen diren enpresek (gehienetan, zerbitzuetakoak) jardueraren lehen erabilerako lizentzia eskuratu behar dute. Ez dira onartuko jarduera sailkatuen lizentzia behar duen jarduera bat duten enpresak.

–Erantzukizun zibileko aseguruak:

Enpresa bakoitzak erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko du, gutxienez 50.000 euroko estaldura izanen duena, hirugarrenei eragindako kalteak estaltzeko; erantzukizun zibil profesionala estali beharko du. Halaber, bulegoan dauzkaten ondasun pertsonalei nahiz ekipamendu informatikoei eragindako kalteak sartu beharko dituzte aseguruan, bakoitzak daukanaren arabera balioan, lapurreta, sutea eta urak eragindako kalteak estalita. Horren kopia bat igorriko diote Eguesibarko Udalari. Aseguruak urtez urte berriro beharko da.

–Edukizaillearen eta edukiaren aseguruak:

Enpresa mintegiaren eta Eguesibarko Udalaren azpiegitura orokorrekin (eraikinaren egitura barne) edukizaillearen gaineko aseguruak dute,

Udalak egina. Hala ere, edukiaren gaineko aseguria egitea gomendatzen da.

–Laneko arriskuen prebentzioa:

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen eta legeria osagarriaren arabera, instalatuta dauden enpresek hori bete eta aplikatzeko konpromisoa hartu beharko dute.

8.–Tasak eta fakturazioa.

Aplikatu beharreko tasak horretarako onetsiriko ordenantza fiskalean ageri dira.

Hilero ordainduko dira tasa horiek. Alten eta bajen kasuan, ordaindu beharreko zenbatekoa hila osoak kontuan hartuz likidatuko da. Baja hartu nahi duten erabiltzaileek Udalaren Erregistro Orokorren bidez jakinarazi beharko dute, idatziz, hilabete lehenagotik. Epe hori betetzen ez bada, dena delako hilari dagokion zenbatekoa kobratuko da.

Diru bilketarako borondatezko epean ordaindu gabeko kuotak premiamendu prozeduraren bidez kobratuko dira. Ez bada ordaintzen bi hileko edo gehiagoko zenbatekoa, erabilera-lagatzea balio gabetu egingen da.

9.–Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

a) Erabiltzaileak –personak edo enpresak– behar bezalako baldintzetan eta funtzionamendu normalean jasoko ditu adjudikatu zaion lokala eta haren instalazio eta zerbitzu guztiak; horrenbestez, egoera berean itzuli beharko ditu kontratua bukatzean.

Eremuak garbi-garbi eduki beharko dira.

Eremu komunak esleitu zaien erabileraren arabera erabili beharko dira.

Erabiltzailearen kontura baino ez dira izanen norberaren jardura gauzatzeagatik edo instalazioak behar ez bezala erabiltzeagatik sortzen diren mantentze, konpontze eta birjartze gastu guztiak. Erabiltzaileak idatzizko baimena eskatu beharko dio Eguesibarko Udalari halakoak gauzatzeko, eta betiere bera izanen da adjudikatu zaion lokalean gertatutako kalte guztien erantzulea.

b) Erabiltzaileak ez du lokalean eraberritze obrarik batere egiten ahal, Eguesibarko Udalaren berariazko baimena izan ezean.

Jardura gauzatzeko, lokala eraberritu behar izanez gero, behar den obra baimena eskatu beharko da (eskabidea betez, eraberritze mota eta haren aurrekontua zehazturik), eta eraberritzea abiatzeko ebazpena jakinarazi zain geratu. Mintegiko egonaldia iraganik, Eguesibarko Udalak aztertuko du lokala hasierako egoerara itzuli behar den ala eraberritzea mantendu behar den. Eraberritzea kendu eta lokala lehengoraturik itzuli behar bada, han instalaturik egon den enpresaren kontura izanen dira gastuak.

c) Lokala zertarako adjudikatu den, horretarako baino ez da erabiliko, hitzartu ez bezalako negozioari jarri gabe, Eguesibarko Udalak idatzizko baimena eman ezean.

d) Erabat debeku da lokalean gai sukoiarik, kaltegarriak edo arriskutsurik sartu eta edukitzea, Eguesibarko Udalak berariazko eta idatzizko baimena eman ezean.

e) Mintegiko eremu bakoitzaren erabilerak ez du ekarri behar ezohiko eragozpenik (jardura arriskutsu, osasungaitz eta kaltegarria, edo giroa nahasten ahal duena zaraten, dardaren, usainen edo tenperaturen bidez, edo gainerako okupatzaileei eragiten ahal dien jardura oro) bertan proiektaturiko jarduerendako.

f) Abenduaren 26ko 25/2005 Legeari jarraikiz, debeku da enpresa mintegiko eremuetan erretzea, aire zabalean dauden eremuetan izan ezik.

g) Erabiltzaileek errespetatu egin behar dituzte trafikorako adierazleak eta seinaleak, badaudenak zein une bakoitzean jartzen direnak.

h) Eguesibarko Udalak eskubidea izanen du lokala noiznahi bisitatze, komenigarria edo beharrezkoa iruditzen zaionean, baldintzak betetzen diren eta bertan obrarik egin behar duen egiaztatze, edo bestela, edozein arrazoi dela-eta komenigarria iruditzen zaion guztietan. Udalak berak edo horretarako izendatutako edo ordezkariak duen pertsonak egiten ahalgo dituzte bisita horiek.

Horri dagokionez, eta kontratu honen objektu den lokalean jabeak obrak egin behar dituztenak –behar diren agintariek horiek egiteko agindu ez badute ere–, erabiltzaileak behartuta egonen da obra horiek egin behar dituzten tekninari eta langileei adjudikatu zaion eremuan sartzen uztera.

i) Erabileraren gaineko erregelamenduak eguneratzeak izanen ditu aldi behin, zerbitzua hobetzeko eta premia berrietara egokitzeko. Aldaketa horien berri emanen zaio eremua adjudikatu zaion erabiltzaileari, eta nahitaez bete beharko dira haien berri ematen den unetik hasita.

j) Eguesibarko Udalak beharrezkoak iruditzen zaizkien erabaki guztiak hartuko ditu mintegiaren jardunbide eta funtzionamendu zuzenerako, eta erabaki horiek mintegiko erabiltzaile eta okupatzaile guztiak bete beharrekoak izanen dira, jabeak haiek jakinarazi ondoren.

10.–Seinaleak eta errotuluak.

Udala arduratuko da bere gain mintegian dauden ekimenen errotuluak eta seinaleak jartzeaz, eredu komun bat ezarririk.

Ez da onartuko inolako errotulurik jartzea bulegoetan edo eraikinaren kanpoaldean, Udalak ezarritakoez gain.

I. ERANSKINA

[Enpresa mintegiko eremuen eskabidea](#) (PDFa).

II. ERANSKINA

Proiektuak baloratzeko irizpideak

Itxarote-zerrendan dauden proiektuak irizpide hauen arabera baloratu dira:

1.–Negozio ideia: Gehienez ere, 20 puntu.

Adierazleak:

–Proiektuaren bideragarritasuna.

–Proiektua udal plan estrategikoarekin bat etortzea.

–Proiektuaren heldutasun-maila.

–Proiektua finantzatzeko estrategia (autofinantzaketa).

–Mintegian dauden beste proiektu batzuekin edo udalerriko beste enpresa batzuekin harremana izateko gaitasuna.

–Lanpostu eta enpresa berriak sortzea proiektua abiaraztean.

–Arreta ematea udalerrian arreta eta laguntza handiagoak behar dituzten kolektiboak (adingabeak, gazteak, etab.).

–Generoaren arloko eragina.

–Berrikuntza soziala: udalerrian berriak diren zerbitzuak edo negozio ideiak, sareko lankidetzan edo lanean aritzea zerbitzuak ematen direnean.

–Proiektuak gizartean izango duen erantzun-maila edo transferentzia-maila.

2.–Sustatzaileen gaitasun tekniko eta profesionala. Gehienez ere, 20 puntu.

Adierazleak:

–Enpresa-proiektuarekin loturiko prestakuntza.

–Ekintzaitzako proiektuarekin loturiko esperientzia eta ibilbide profesionala.

–Proiektua garatzeko arloko ezagutza.

–Elkarrizketa pertsonala Toki Garapen eta Enplegu Zerbitzuarekin.

3.–Enpresa jardura zer sektoretan gauzatzen den. Gehienez ere, 10 puntu.

Adierazleak:

–Toki garapeneko plan estrategikoan jasotzen diren lehentasunezko sektoreekin loturiko zerbitzu profesionalak.

–Herritar taldeendako arretarekin (adingabeak, gazteak, adinekoak, mendekotasun egoeran daudenak, etab.), osasunaren eta kirolaren arloko jardurekin eta kultura eta aisialdiko jardurekin loturiko zerbitzuak.

–Eguesibarren berritzaileak diren proiektu eta ekimenak.

4.–Lehentasunezko herritar-profiletako eskatzaileak. Gehienez ere, 20 puntu.

Adierazleak:

–Luzaroko langabeak (langabezia izena emanik eta lanik gabe egon behar dute langile autonomoen araubide berezian alta hartu aurre-aurreko 12 hilabeteetan jarraian), 4 puntu..

–18 urtetik 30 urtera bitartekoak, edo berrogeita bostetik gorakoak, 4 puntu.

–%33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenak, 4 puntu.

- Behar bereziak dituztenak, 4 puntu.
- Emakumeak, 4 puntu.

5.–Udalerrian erroldaturikoek sustatzen dituzten proiektuak. Gehienez ere, 30 puntu.

Aldeko ebazpena lortzeko edo itxarote-zerrendan dauden eskatzaileen poltsan sartzeko, gutxienez puntuen %50 lortu beharko da (50 puntu).

Toki Garapen eta Enpleguko Zerbitzuak eginen du proiektuen baremazioa, beste arlo batzuen laguntzarekin, baloratu beharreko proiektuaren arabera.

Kasu guztietan, baremazioari ekiteko, kolektibokoa izatea egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

L2002170

EGUESIBAR

Ordenantza, kultur ikastaro eta jardueretako bizikidetzari buruzkoa. Hasierako onespina

Eguesibarko Udalak, 2019ko abenduaren 10eko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Kultur ikastaro eta jardueretako bizikidetzari buruzko ordenantza.

Aldaketa horren hasierako onespeneren eta erregelamenduzko jendaurreko epearen iragarkia argitara eman zen 2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27an, eta Udalaren iragarki-taulan. Jendaurrean egon bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, behin betiko onetsirik gelditu da, ondotik ematen den testuari jarraikiz.

Argitara ematen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluetan eta aplikatzen ahal den gainerako legerian ezarritakoa betetzeko.

EGUESIBARKO UDALAREN KULTUR IKASTARO ETA JARDUERETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ORDENANTZA

1. artikulua.

Erregelamendu honen xedea da kultur ikastaroen eta jardueren funtzionamendua arautzea.

2. artikulua.

Udalak sustatutako kultur ikastaroetan eta jardueretan izena eman dezakete jarduera bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituztenek, baldin eta legezko arrazoiren batean sartuta ez badaude edo haietan izena ematea galarazten edo eragozten duen zehapen bat bete behar ez badute.

3. artikulua.

Orokorrean, erroldatuek lehentasuna izanen dute ikastaroetan eta jardueretan izena emateko. Erroldatuta ez dauden pertsonen plaza libreak gelditzen badira eskuratu ditzakete.

Oro har, aurrez izena emateko epe bat irekiko da, eta bertan eskaera guztiak jasoko dira, ondoren, beharrezkoa izanez gero, zozketa bat egiteko erroldatutakoen artean. Zozketa horretan, plazak berretsi beharko dituzte, ordainketa eginez.

Salbuespen gisa eta Udalak behar bezala arrazoituta, ikastaroetarako eta jardueretarako sarbidea eta izena emateko modua alda daitezke.

4. artikulua.

Erabiltzaileek lokaletan kalterik ikusiz gero, Udalarari berehala jakinaraziko diote, behar diren neurriak har ditzan.

5. artikulua.

Interes orokorreko arrazoiengatik, Udalak edozein jarduera eten dezake, eta erabiltzaileek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izanen.

6. artikulua.

Besteak beste eta aipatzearen, honako hauek izanen dira Kultura arloaren eskumenak:

–Eguesibarren kultur jardueren garapena sustatzea, eskaintza egoki batekin.

–Kontratututako erakundeekin edo adjudikazio-hartzaileekin ikastaroak eta jarduerak koordinatzea eta gainbegiratzea.

–Antzemandako beharretatik sortutako kultur proposamenak egitea.

–Taldeen behar bezalako funtzionamendua zaintzea.

–Eskumena duen zinegotziari etengabe jakinaraztea ikastaroetan eta jardueretan garrantzitsua den guztia.

–Eskainitakoaren inguruan egiten diren iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aditzea.

–Begiratzea egiten diren jarduerak normaltasunez eta era koordinatuen egiten ote diren, indarrean dauden barne araudiekin eta erregelamenduzko arauekin bat.

7. artikulua.

Udalaren kultur ikastaroetan eta jardueretan izena eman dutenek honako eskubide hauek dituzte:

–Izena emanda dauden jarduerak edo ikastaroak egiteko lokalak erabiltzea.

–Arduradun eta irakasle kualifikatuak izatea.

–Duintasunez tratatzea.

–Giro seguruan parte hartzea.

8. artikulua.

Irakaslea izanen da edukien, programen eta metodologiaren arduraduna. Horrez gain, sortzen diren arazozen berri emanen diote Kultura arloari.

Irakasleak, ezagutza jakin batzuk emateaz gain, jarduera pedagogikoak bideratu beharko ditu erakunde honek ezarritako filosofiaren arabera: ikasleak animatu eta motibatu.

Bizikidetzarako eta errespeturako arau batzuk bete beharko ditu, eta giro lasaia eta atsegina sortzen saiatu.

Ikasgelan sortzen diren arazoak konpondu beharko ditu, eta kultura arloari informazioa eman irtenbiderik hoberena bilatzeko.

9. artikulua.

Erabiltzaileek betebehar hauek ere izanen dituzte:

–Jarduerak egiten diren lokalen erabilera errespetatzea.

–Arduradunak aldiro errespetatzea, Udaleko langileak zein kultura jarduera eta ikastaroetarako kontratatutako langileak izan.

–Kalteak sortuz gero, pertsonalki erantzutea. Legezko tutoreak haien ardurapeko adingabeek eragindako kalteen erantzule izanen dira.

–Irakasleak edo arduradunak ezartzen dituen arauak betetzea, elkarrenganako errespetua mantenduta.

10. artikulua.

Arau-hauste arintzat joko dira:

–Animaliak eta baimenik gabeko gauzak lokaletan sartzea.

–Instalazioen ordena eta funtzionamendu egokia aldatzea, edo gaine-rako erabiltzaileenganako errespeturik ez izatea.

–Erabiltzaileen eskura jarritako jarduera eta/edo instalazioetarako objektuak kaltetzea edo gaizki tratatzea.

–Erabilitako gauzak ez jasotzea eta ez garbitzea.

–Lokaletan dauden eta beste talde edo pertsona batzuenak diren instalazioak edo materialak bestelakotzea.

Arau-hauste astuntzat joko dira:

–Erabiltzaileen eta gainerako parte-hartzaileen instalazio, ekipo, material edo objektuak lapurtzea edo haien kalteak eragitea.

–Lokaletan liskarrak, erasoak edo iskanbilak sortzea.

–Jardueretako parte-hartzaileei eta horien arduradunei fisikoki edo hitzez erasotzea.

–Ikastaro eta jardueren funtzionamendu egokirako arduradunek ezartzen dituzten jarraibideei behin eta berriz kasurik ez egitea.

–Lokalak erabiltzeko berariazko arauak behin eta berriz ez betetzea.

–Erabiltzaileen eskura jarritako jarduera eta/edo instalazioetarako objektuak larri kaltetzea edo gaizki tratatzea.

–Arau-hauste arin beragatik bitan baino gehiagotan zehatua izatea.

11. artikulua.

Arau-hauste arinak egiteagatik honako zehapen hauek jar daitezke:

–Ohartarazpena.

–Aldi baterako kanporatzea, gehienez ere hamabost egunerako, eta eskubide guztiak galtzea.

–Arau-haustearen ondorioz instalazioetan kalteak gertatu badira, zehapen gisa ezar daitezke konponketaren edo kaltearen kostuaren zenbatekoa ordaintzea.

–3 hilabeteko epean 2 arau-hauste arin eginez gero, arau-hauste astun bat egiteagatik jartzen den zehapenaren adinakoa jarriko da.

–Arau-hauste edo zehapen arinek urtebetean galduko dute indarra.

Arau-hauste astunak egiteagatik honako zehapenak jar daitezke:

–Lokaletik kanporatzea, berriz sartzeko aukerarik gabe. Adingabeen kasuan, gurasoei edo tutoreei adieraziko zaie alde zurretik. Lokalizatzeko moduan ez badaude, ikastaroen arduradunek udaltzaingoaren zaintzapean utz dezakete adingabea, irakasleak egoki iritiz gero.

–Aldi baterako kanporatzea; 6 hilabeterako, gehienez ere.

–2 arau-hauste astun edo gehiago egitearen ondorioz, inskribatutako pertsona behin betiko kanporatu daitezke ikastarotik edo jardueratik.

–Instalazioek kalteak edo galerak badituzte, zehapenarekin batera inposa daiteke eragindako kaltea edo kaltea konpontzeko kostua ordaintzea, eta premiamendu bidez erreklama daiteke.

–Arau-hauste eta zehapen astunek haiek egin eta bi urteren buruan galduko dute indarra.

12. artikulua.

–Alkatetzak edo zinegotzitza ordezkariek zehatuko ditu arau-haustekak, ustezko arau-hausleari entzun ondoren eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren administrazio-zuzenbideko arauetan ezarritakoaren arabera.

–Zehapenak izan daitezke ohartarazpenak eta isunak, legez ezarritako zenbatekoa gainditu gabe.

–Zehapenak mailakatzeko, kontuan hartuko dira zerbitzuari sortzen zaion kaltea, egilearen asmoa edo borondatea eta hutsegiteak behin eta berri egitea.

Sarrigurenen (Eguesibar), 2020ko otsailaren 12an.–Alkatea, Amaia Larraya Marco.

L2002276

ZUÑIGA

2020rako zerga-tasak

Zuñigako Udalak, 2019ko azaroaren 29an egin bilkuran, jarraian osorik ematen den erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerga-tasa hauek erabaki dira:

Lehenbizikoa.–Zerga-tasa hauek jartzea 2020rako:

a) Hiri-lurreko nahiz landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko karga-tasa %0,1387 izan dena.

b) Ekonomia jardueren gaineko zergaren tarifei 1 indizea aplikatuko zaie.

c) Eraikuntza, obra eta zerbitzuen gaineko zerga (EIOZ):

–%4, obra gauzatzeko aurrekontuaren gainean, obra berrietarako edo lehen etxebizitza zaharberritzeko, titularraren ohiko bizileku iraunkorra ez badira.

–%3, obra gauzatzeko aurrekontuaren gainean, obra berrietarako edo lehen etxebizitza zaharberritzeko, titularraren ohiko bizileku iraunkorra badira.

–%5, obra gauzatzeko aurrekontuaren gainean, nekazaritzako eta industriako jarduerak ezartzeko obretarako.

d) Hiri-lurren balioaren gaineko zergari dagokionez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 175. eta 178. artikuluetan ezarritako gutxieneko tasak aplikatuko dira.

e) Zirkulazioaren gaineko zergaren tarifak aplikatzea.

f) Tasak:

–Udal agertokia lagatzea: 100 euro.

–Udal agertokiaren fidantza: 200 euro.

–Bide berdean ibiltzeko txartela ematea: 5 euro/txartela.

–Ureztatzeko ura: 0,10 euro/metro kubikoa.

–Ureztatzeko uraren urteko kanona: 10 euro/kontagailua.

–Erabilera anitzeko gela alokatzea jarduera partikular eta/edo pribatuetarako: 20 euro/eguna.

Bigarrena.–Tasa eta prezio publikoei dagokienez, aplikatzekoak izan dira 2020rako ezarritakoak.

Hirugarrena.–Erabaki honetan finkatu diren zerga eta tasak aplikatuko dira 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Laugarrena.–Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta Zuñigako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, behar diren ondorioak izan ditzan.

Zuñigan, 2020ko urtarrilaren 31n.–Alkatea, Pedro María Oteiza Diaz.

L2002169

UHARTEKO ETA ESTERIBARKO UDALEN ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

1/2019 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespena

2020ko 6. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 10ean, Uharteko eta Esteribarko Udalen Zerbitzuen Mankomunitatearen 2019ko ekitaldiko aurrekontuan 1/2019 aldaketa egitea hasiera batez onesteko erabakia. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuan egin aldaketa hori behin betiko onetsi eta argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz (foru-dekretu horren bidez garatu zen, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan,

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea).

Kreditu-gehigarria

PARTIDA	GASTUA	ZENBATEKOA (eurotan)
1 9120 1000000	Mankomunitateko buruaren ordainsaria	1.825,00
1 2311 1300002	Familia-langileen soldata (finkoak)	19.750,00
1 2311 1310001	Gizarte-langileen soldata (aldi baterakoak)	37.000,00
1 2412 1310001	Enplegu sozial babestuko soldata	10.000,00
1 9200 1310001	Administrariaren soldata	7.100,00
	GUZTIRA	75.675,00

Finantzaketa

PARTIDA	GASTUA	ZENBATEKOA (eurotan)
1 389	Aurrekontu itxietako itzulketak (Gizarte Segurantzaren kuotak)	8.575,00
1 870	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	67.100,00
	GUZTIRA	75.675,00

Uharten, 2020ko otsailaren 11n.–Mankomunitateko burua, Iñaki Crespo San José.

L2002126

NOAIN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

2020ko aurrekontua. Behin betiko onespena

Jendaurreko epea iraganda inork alegaziorik aurkeztu gabe eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan xedatuari jarraikiz, behin betiko onesten dira 2020ko aurrekontua eta hura betearazteko oinarriak. Hasierako onespeneren erabakia 2020ko 3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 7an.

DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua.–Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 25.750,00 euro.

4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 1.471.013,11 euro.

5. kapitulua.–Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 10.010,00 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 1.506.773,11 euro.

GASTUAK:

1. kapitulua.–Langileria gastuak: 1.104.137,22 euro.

2. kapitulua.–Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 276.329,88 euro.

4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 74.600,00 euro.

5. kapitulua.–Kontingentziatarako eta beste ustekabe batzuetarako funtsa: 19.706,01 euro.

6. kapitulua.–Inbertsio errealak: 32.000,00 euro.

Gastuak, guztira: 1.506.773,11 euro.

Noainen, 2020ko urtarrilaren 29an.–Mankomunitateko burua, Manuel J. Mozota Núñez.

L2001634

NOAIN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

2020ko plantilla organikoa. Behin betiko onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatuari jarraikiz, jendaurreko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, behin betiko onesten da 2020ko plantilla organikoa, eranskinean zehazten dena. Hasierako onespeneren erabakia 2020ko 3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 7an.

Noainen, 2020ko urtarrilaren 30ean.–Mankomunitateko burua, Manuel J. Mozota Núñez.

NOAIN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN 2020KO PLANTILLA ORGANIKOA

Izendapen libreko langileak

LANPOSTUAREN IZENA	SARBIDEA	LANALDI MOTA	MAILA
Kudeatzailea	Izendapen librea	Osoa	A maila

Funtzionarioak

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	MAILA	LANPOSTUKO OSAG.	MAILAKO OSAG.	EGOERA
Gizarte-hezitzailea	1	C maila	%17,36	%12,00	Jardunean
Familia-hezitzailea	1	C maila	%17,36	%12,00	Jardunean
Administrari-ofiziala	1	C maila	%17,36	%12,00	Jardunean
Gizarte-laguntzailea	1	B maila	%33,57		Jardunean
Psikologoa	1	A maila	%38,72		Jardunean

Lan-kontratadunak

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	LANALDIA	MAILA	LANPOSTUKO OSAG.	MAILAKO OSAG.	EGOERA
Gizarte-langileak	3	Osoa	B maila	%33,57		Hutsik
Berdintasunerako agentea	1	Osoa	B maila	%10,00		Hutsik
Administrari laguntzailea	1	Osoa	D maila	%22,45	%12,00	Jardunean
Familia-langileak	3	Osoa	D maila	%16,99	%12,00	Jardunean
Familia-langileak	1	Osoa	D maila	%16,99	%12,00	Hutsik

L2001635

**AZKOIEN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEA**
**Aldaketa, Etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen ordenantzan.
Hasierako onespena**

Azkoiengo, Martzillako, Faltzesko eta Funesko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 31n egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2020rako aldaketa Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu hori emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantzan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikularekin bat etorritz, onetsitako aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta erreklamazioak, kexak edo oharra aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, aldaketa behin betikoz onetsiko da Etxeko laguntza zerbitzuko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean, eta aldaketak osorik emanen dira argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Azkoien, 2020ko otsailaren 10ean.–Mankomunitateko burua, Nuria Autor Resano.

L2002039

6. BESTELAKO IRAGARKIAK

6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK

ABÁRZUZA

Baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes

No habiendo podido ser notificado el siguiente expediente relativo a Baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes de Abárzuza, se procede a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra:

1. Se incoa expediente de baja de oficio de conformidad con lo previsto en el artículo 72, en relación con el artículo 54, ambos del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, a las personas que se relacionan a continuación.

2. Se notifica la apertura de expediente y se concede un plazo de quince días hábiles para alegaciones, a contar desde la fecha de publicación del presente edicto.

Abárzuza, 25 de febrero de 2020.–El Alcalde, Miguel Ros Ros.

RELACIÓN DE EXPEDIENTES

Fecha expediente: 25/02/2020. DNI/NIE/Pasaporte: 5611583B. Domicilio: Calle Sancho Abarca, número 1, 1.º izquierda.

Fecha expediente: 25/02/2020. DNI/NIE/Pasaporte: 73485294H, 73491954P, 73493572Q, 73491731S, 73491730Z, 73608944C, CF6146505, UE2402874, CW6573219, JA7901861, DT2013960, BW3750723, JM3298910, YA5519320. Domicilio: Calle Sancho Abarca, número 1, 1.º derecha.

L2002976

CINTRUÉNIGO

Baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes

Intentada la notificación a los interesados de la incoación de oficio del expediente para proceder a darle de baja en el Padrón de Habitantes por no residir en el domicilio indicado durante la mayor parte del año, no se ha podido practicar.

De conformidad con la Resolución de 1 de abril de 1997 de la Presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del Director General de Cooperación Territorial punto II 1 c 2 se procede a la publicación de este anuncio en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Navarra, para que en el plazo de diez días desde su publicación para que el afectado presente los documentos y justificaciones que estime pertinentes.

Lo que se hace público a los efectos oportunos.

Cintruénigo, 27 de febrero de 2020.–El Alcalde, Oscar Bea Trincado.

RELACIÓN DE EXPEDIENTES

Documento: X9384096G. Expediente: 135/2020.

L2003050

TAFALLA

Notificación resolución alcaldía

Notificación para: Y-1633648-H.

Acto que se notifica: Resolución expediente sancionador 04/BAN/2019-N 96.

No habiendo resultado posible la notificación prevista en el artículo 42 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se publica la presente Resolución de Alcaldía de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la referida Ley.

La notificación, por parte del Ayuntamiento de Tafalla, de la resolución sancionadora, fue remitida con fecha 10 y 11 de febrero de 2020.

El texto íntegro de la comunicación, así como el resto del expediente, se encuentra a disposición del interesado en las oficinas de Policía Local del Ayuntamiento de Tafalla.

Contra el presente acto administrativo podrán interponerse los siguientes recursos:

–Recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiera dictado en el plazo de un mes que se contará a partir del día siguiente al de la notificación del presente acuerdo.

–Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del mes siguiente al de la notificación de este acuerdo.

–Recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la presente notificación.

Lo que se publica, en cumplimiento de las determinaciones legales contenidas

Tafalla, 24 de febrero de 2020.–El Alcalde, Jesús Arrizubieta Astiz.

L2002936

TAFALLA

Notificación de resolución de alcaldía

Notificación para: 72.818.044-K.

Acto que se notifica: Resolución expediente sancionador 49/OR/2019-N.º 87.

No habiendo resultado posible la notificación prevista en el artículo 42 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se publica la presente resolución de Alcaldía de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la referida Ley.

La notificación, por parte del Ayuntamiento de Tafalla, de la resolución sancionadora, fue remitida con fecha 10 y 13 de febrero de 2020.

El texto íntegro de la comunicación, así como el resto del expediente, se encuentra a disposición del interesado en las oficinas de Policía Local del Ayuntamiento de Tafalla.

Contra el presente acto administrativa podrán interponerse los siguientes recursos:

–Recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiera dictado en el plazo de un mes que se contará a partir del día siguiente al de la notificación del presente acuerdo.

–Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del mes siguiente al de la notificación de este acuerdo.

–Recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la presente notificación.

Lo que se publica, en cumplimiento de las determinaciones legales contenidas.

Tafalla, 25 de febrero de 2020.–El Alcalde-Presidente, Jesús Arrizubieta Astiz.

L2003013